# ITSASU
# ITXASSOU



HERRI ALDIZKARIA JUILLET 2023 UZTAILA BULLETIN MUNICIPAL











**Kuraia eta elkartasuna 2023ko ekain erditan harri erauntsi bortitzak jo dituen herritar guziei.**

**Lagunen ganik eta herri giroan kausi dezatela altxatzeko indarra. Itsasuar orori udaz gozatzeko parada.**

**Courage et solidarité à tous ceux et celles qui ont subi la violente tempête de grêle de mi juin 2023.**

**Ils trouveront la force de repartir auprès de leurs proches et des habitants du village. Bel été à tous les itsasuar.**

# ÉDITO

## Auzapezaren hitza



Gure lehen hitzak doaz dudarik gabe kalteak jasan dituzten itsasuko laborariei. Askok bizipide duten uzta osoa edo partea galdu dute. Gogoan ditugu baitaere etxetan edo beribiletan makurrak pairatu dituzten herritar guziak.

2023ko ekainaren 20eko harri erauntsi itsusiak denak harritu gaitu bere dorpeaz eta bere iraupenaz. Holakorik bazela posible ! Itsasuko herri gehientsua hunkia izan da, auzo herri batzu bezala. Beharko dira denbora, kuraia eta ahalbideak kaltetuak izan diren guzien konpontzeko, eta gogo etsituen suspertzeko.

Herriko Etxeko hautetsaldiaren erditan helduko zaizue aldizkari hau. Parada ederra erdibidetan ekintza bilduma xume baten egiteko. Errexago baita hiru urtetako ekintzen aipatzea, egunez egun kurutzatu den hainbeste herritarren harreman kalitatea haztatzea baino.

Gehastoko bide bazterretan gelditzen ziren beribilek nardatzen zituzten mendiko herritarrak eta Ataitzetako bidearen zeharkatzea infernu bilakatua zen udan bereziki : neurriak hartu ziren beribil asko bide horietarik apartatzeko eta oinez bidaltzeko gure bazterren miresterat. Gure mendiak bihurtu dira hainbeste baliapen ezberdinen kokagune eta lehentasuna atxiki behar diogu hazkuntzari. Euskarak merezi zuen itzalpetik ateratzea, eta ari da urratsez urrats erabilpen pribatuan eta publikoan berpizten, normalizapenaren bidean. Balaki trinketa hor zagon dilindan karrika bazterrean : herriak beretua du eta bihurtu behar luke kirola eta elkarbizitzaren erdigune. 2012an abiatua izan zen Hirigintza Planaren bermoldatzea erdibidean gelditua zen : kontseiluko hirigintza batzordearen hiru urteko lanak eraman dauku 2023ko hirigintza plan berriaren onarpenerat. Irigoinbehereko osasun etxe ohia ere menturaz hasiko da berpizteari Ataria elkarteak sustatzen dituen gogoeta eta asmoei esker. Mogikortasunak ere badu gaurkotasun : bide sentsu aldaketei buruzko gogoeta kolektiboa aintzina doa eta herri erdiko karriken giroak gustagarriago, lasaiago eta animatuagorat ixuri behar luke. Bizitegien dozierra ere sartzen da arrangura nagusietan : herriko etxeak erosi berri ditu bi etxe herritarreri bizitegi erosgarriak eskaini ahal izateko eta espekulazioaren zirimolatik ateratzeko. Ekintza guzi hauen zerrenda ez da osoa, eta gelditūko da egiteko egina denaz askoz gehiago.

Kuraia eta elkartasuna opa diegu beste behin harri erauntsiaren ondorio latzen kalteak gainditu nahiz ari diren herritarrei. Denek ukan dezatela uda huntan familia eta lagun giroan gozatzeko parada ederrik.

**Mizel HIRIBARREN**
Itsasuko auzapeza

Nos premiers mots vont tout naturellement aux itsasuar qui ont subi des dégâts matériels sur leurs maisons ou leurs voitures, et bien évidemment à tous les agriculteurs qui auront perdu des cultures entières dont ils tirent leur revenu principal.

La tempête de grêle de ce 20 juin 2023 nous aura tous surpris par la violence et la durée du phénomène. Bien plus de la moitié du territoire de la commune a été impactée. Il faudra du temps, de l'énergie et des moyens pour réparer les dégâts matériels. Il ne faudra pas moins de courage et de solidarité dans la durée pour surmonter le traumatisme moral de tous ceux qui ne parviennent pas à oublier ces vingt longues minutes de déluge.

Nous n'irons pas chercher de transition entre cette malheureuse actualité climatique et l'intention de revenir sur trois années d'actions à la mairie d'Itxassou.

Ce numéro du bulletin municipal arrive donc à mi mandat municipal et nous donne l'occasion de faire un modeste bilan des actions majeures qui ont pu être engagées. Il est plus difficile de revenir sur les multiples rencontres humaines qui auront pourtant émaillé le quotidien de ces trois premières années.

Le stationnement sauvage à Gehasto irritait les riverains, et la traversée du Pas de Roland était infernale en été : des mesures ont été prises pour contenir les flux de voitures et faire découvrir nos paysages à pied. La montagne est le théâtre de bien des conflits d'usage, et l'activité pastorale doit être la priorité des préoccupations des quartiers de montagne. L'euskara méritait de sortir de l'ombre et il regagne lentement en usage public et privé comme en légitimité. Le trinquet Balaki ne pouvait plus attendre en entrée de bourg, et il est repris par la commune pour devenir un carrefour de la vie sociale et sportive. La révision du PLU engagée en 2012 était en panne : trois années de travail de la commission urbanisme auront permis d'aboutir enfin au nouveau PLU de ce printemps 2023. La maison de la Nive Irigoinbeherea va certainement commencer à se relever de ses cendres avec Ataria en chef de file des porteurs de projet. Les questions de mobilité sont toujours de première actualité : la réflexion collective de fond avec accompagnement extérieur avance bien, pour retrouver un centre bourg accueillant, apaisé et animé. Le dossier du logement s'inscrit dans les préoccupations majeures : la commune vient d'acquérir deux habitations pour contribuer à la lutte contre la spéculation immobilière et pouvoir offrir quelques logements de qualité à prix accessibles aux itsasuar. Cette liste des actions engagées au-delà des sollicitations plus individuelles n'est pas exhaustive, sans compter toutes celles qu'il faudra déployer dans les toutes prochaines années.

Courage et solidarité à ceux et celles qui n'en ont pas fini de panser les plaies causées par la tempête de grêle et de beaux moments de convivialité à tous les itsasuar pour cet été 2023 !

**Mizel HIRIBARREN**
Maire d'Itxassou

**Itsasuko Herriko Etxea - Mairie d'Itxassou**
**05 59 29 75 36 - Email : accueil@itxassou.fr**
**Site : www.itxassou.fr**

**Mise en page / Diseinua / Itsasuko Herriko etxea**

**Impression sur papier recyclé :**
**Imprimerie Mendiboure - Arizmendi**

# AURKIBIDEA / **SOMMAIRE**


Editoriala / Édito

## BERRIAK / ACTUALITÉS

Hirigintza plan berriak finkatzen ditu araudiak / le PLU nouveau est en vigueur 4
Hirigintza batzordearen hiru urte lanen ondorioz / trois années de travail de la commission urbanisme 5
Bizitegi zaharren berritzeko laguntza publikoa / bientôt une opération d'amélioration de l'habitat 6
Iguzki panelak erosteko elkartuz / achats groupés de panneaux photovoltaïques 7
Herri erdiko karrika atseginak, lasaituak eta biziak / des rues accueillantes, apaisées et animées 8-9
Kirola, elkarbizitza eta herri giroa/ du sport, de la vie sociale et des convivialités 10
BALAKIDE elgarrekin egiteko gune bizi bizia / un lieu ouvert et animé 11
Bizitegi eskasari buru egiteko nahikeriaz / une volonté de contribuer à répondre aux besoins de logements 12
Kurutzaldiaren parte herriak erosi / la mairie achète une partie de Kurutzaldia 13
Irigoinbeherea Atariaren egoitza / La Nive, centre de formation, de ressources et de rencontres 14
Hurbil osasun zerbitzuak eta bizitegi erosgarri berriak Ordokian 15
Projet d'un pôle santé et de nouveaux logements sur Ordokia
Harremanak berritz lotu / Itsasu-Etxauri c'est reparti 16
Harri uharrik itsusiena / 20 minutes de grêle et des torrents de boue 17
Zenbat laborari gelditzen Itsasun ? / une soixantaine de paysans à titre principal ou secondaire 18
Mendiko alhagiak eta naturaren ondarea / agropastoralisme et patrimoine naturel 19

## SOZIALA / SOCIAL

100 urte bete ditu Marie Urthiaguek / une centenaire honorée à la mairie d'Itxassou 20
Zine pizza gaualdiak eta herri joko desafioak / soirées ciné pizza et défis autour des jeux traditionnels 21
Adinetakoen erortzeko arriskuaz eta haurren mahain jokoak / atelier « bougez en sécurité » et jeux en famille 22
Asialdi jarduerak gazteentzat eta adinetakoen garraio solidarioa / activités de loisirs des ados et transport solidaire 23

## HEZKUNTZA / EDUCATION

Ecole publique : ura izan da ikasturteko lema / l'eau a été le thème de l'année 24
Arrokagarai ikastola : gure ikastolako jostalekua aldatzen ari dela ! / notre cour de récréation change ! 25
San Josep eskola : eskolak 60 urte / l'école Saint Joseph a fêté ses 60 ans 26

## ELKARTE BIZIA/ VIE ASSOCIATIVE

Elkarteen aurkezpenak / la parole aux associations 27– 37

## EGUTEGIA/ AGENDA 38

## BERRIAK NAHAS MAHAS/ INFOS DIVERSES 39

## TÉMOIGNAGE (LAURENT HÉGUY) 40





Biper ekoizle, baratzezain, mahastizain, fruitu ekoizle eta bestelako landare aromatiko edo sendabelaren ekoizle izanki, 2023ko ekainaren 20an harriak jo ditu eta elkartasunezko diru lapuntza bat eskatzen dute euskal herriko laborari eta herritar guziei.

Internetez uzten ahal zaie laguntza zerbait Helloasso plataforman : 2023ko ekainaren 20eko harri erauntsi eta tenpesta, gure laboriekin elkartasunez

Ils sont producteurs de piments, maraichers, vignerons, arboriculteurs ou encore producteurs de plantes aromatiques ou médicinales…. La tempête de grêle du 20 juin 2023 les a sonné. Ils lancent ensemble un appel à solidarité auprès de leurs collègues paysans et de tous les citoyens du Pays Basque pour rassembler les fonds indispensables à un nouveau départ au plus tôt.

Les contributions sont à apporter par internet à Hello asso grêle et orages du 20 juin 2023 solidarité avec nos paysans. https://www.helloasso.com/associations/inter-amap-pays-basque/collectes/grele-et-orages-du-20-juin-2023-solidarite-avec-nos-paysans/

# Hirigintza plan berriak finkatzen ditu araudiak
# Le PLU nouveau est en vigueur

**Aho batez bozkatua izan da 2023ko maiatzaren 13an Euskal Herriko Hiri Elkargoan Itsasuko Hirigintza Plana.**

2023ko ekainaren lehenetik, gure hirigintza plangintza da erabiltzen den dokumentua eraikuntza eskaera guzien ikertzeko. Gure herriko lur kalastra lur eremu bakotxa A bezala klasatua da laborantza lur ekarria bada, N bezala klasatua da naturala bezala ekarria bada, eta U hizkiaz darama eraikuntzak haizu diren eremu bezala klasatua bada.

Aipatzen badira bizitegi berriek haizu utziko dituzten eremuak, herri erdiko eremurik hurbilenak dira hautatuak izan. Gomendio publiko guziek bestalakorik ez zioten : eraikuntza eremurik ez onetsi hirien itzulian, baizik eta herri erdi tinkoenetik berehalakoan.

Nahitaez, azken urtetako legeek beharturik, eraikuntzari zabalik gelditIuko diren eremuak ondoko hamar urtentzat izan behar dira azken hamarkadan artifizializatu eremuaren erdia baino gutiago. Hots, horrek ematen du Itsasuren kasuan, 16.50 ektara artifizializatu baziren hamar urtez, 2031 urtea bitartean, 4.87 ektara baino gehiagoko eremu berririk ez da idekitzen ahalko bizitegi berrigintzarako, 3.03 ektara baino gehiago ez delarik idekitzen ahalko antolakuntza publikoentzat eta ekonomia guneentzat.

Izanik herriko gune hiritartuetan edo herriko bestelako edozoin auzoguneetan, PLUaren araudiek baimentzen ahal dute bizitegien egokitzea etxe hutsetan edo orain arteko bizitegiei datxikola.



Carte zonage nord de la commune

**Le Plan Local d'Urbanisme d'Itxassou a été approuvé à l'unanimité le 13 mai 2023 en assemblée plénière de la Communauté d'Agglomération Pays Basque.**

Depuis début juin 2023, notre PLU est la référence de toutes les demandes et décisions d'urbanisme. Chaque parcelle de terrain de la commune est classée en A agricole, en N naturel ou en U urbanisable. Et des règles différentes s'appliquent en particulier pour la construction sur chacune des parcelles en fonction de ce classement.

Concernant les secteurs à réserver à l'aménagement de logements neufs, la priorité de la périphérie immédiate du centre bourg historique a été retenue.

Toutes les recommandations publiques convergent précisément à proscrire l'étalement des zones résidentielles et à investir les proximités immédiates des centres bourgs.

Les surfaces inscrites en urbanisables doivent impérativement être inférieures à la moitié de la consommation foncière des dix dernières années sur la Commune.

La consommation foncière en extension depuis 2012 à 2022 était de 15.3 ha pour de la production de logements.

Depuis 2022 à 2031, la superficie maximale en extension autorisée dans le nouveau PLU à la production de logements sera de 4.87 hectares, alors que 3.03 hectares supplémentaires au maximum pourront être valorisés en zone d'équipements publics et d'activités économiques (cf p. 80 du rapport justification des choix retenus /PLU 2023)

Que l'on se situe en secteur urbanisé ou bien dans les habitations réparties sur les divers quartiers d'Itxassou, le règlement permet de nombreuses possibilités d'aménager du logement dans le bâti existant ou en extension immédiate de ce bâti existant.



Zonage d'ensemble de la commune

# Hirigintza batzordearen hiru urte lanen ondorioz
# Trois années de travail de la commission urbanisme

**2023ko ekainaren lehenaz geroztik, eraikitzeko baimen eskaera guziak eremu klasamendu eta araudi berriekin aztertuak eta onartuak dira.**

Hiru urtetako lan jarraikia eraman du herriko etxea hirigintza batzordeak 2023ko maiatzaren 13ko hirigintza planaren baimentzeraino.

Atharrin aurkeztuak izan ziren 2021eko primaderan Hirigintza Planaren norabide orokorrak. Urte bat berantago, 2022ko apirilean agertuak izan dira Sanokin Hirigintza Planaren norabideak gauzatzen zituzten lur klasamendu eta araudi berriak.

Itsasuko PLU dozierra aztertua izan da ondotik Estatuko zerbitzuen ganik, Departamenduko ofizio ganbaren partetik, Eskualdeko ingurumen batzordearen eskutik eta beste hainbat erakunde publikoen ikuspegitik. Denek baietsi dituzte Itsasuko Hirigintza planaren dokumentuak, ekarri dituzten ohar bakarrak kontutan hartuak izan direlarik PLUaren azken haitadetan.

Herritar guziak gomitatuak izan dira beren PLUari buruzko ohar eta ekarpen guzien egiterat bost astez idekirik egon den inkesta publiko denboran 2022ko abendotik eta 2023ko urtarrilera. Ehun herritar baino gehiagok helarazi dituzte molde batean edo bestean beren iritziak, eta askotan Cazaubon jaun inkestalariari zuzenki.

Inkestalariak baimendu du Itsasuko hirigintza plana, herritarren ganik eskuratu ohar eta gomendioekin.

2023ko maiatzaren 13an baimendua izan den hirigintza planak kondutan hartuak zituen herritarren bakarkako eta multzokako ohar eta gomendio asko.



**Vue du centre bourg d'Itxassou avec grands paysages en fond**

**Depuis juin 2023, tous les nouveaux dossiers d'urbanisme sont instruits à partir des documents de zonage et de règlement de ce nouveau PLU.**

La commission urbanisme de la municipalité élue en juillet 2020 a travaillé trois bonnes années pour parvenir à l'approbation du 13 mai 2023.

Au printemps 2021 avaient été présentées en réunion publique à Atharri les orientations du projet de PLU. Un an plus tard, en début d'avril 2022 étaient présentés à Sanoki les contours du nouveau zonage et du règlement qui traduisaient concrètement ces orientations.

Le dossier du PLU d'Itxassou a été soumis à consultation des services de l'Etat, des chambres consulaires, de l'Autorité environnementale de la Région et d'autres organismes publics . Ils ont tous validé les documents, n'apportant que quelques observations qui seront intégrées dans le projet.

Les habitants du village ont été sollicités à réagir sur le projet pendant les cinq semaines d'enquête publique ouverte du 8 décembre 2022 au 14 janvier 2023.

Plus d'une centaine d'itsasuar a montré son intérêt pour le projet et s'est souvent déplacée auprès du commissaire enquêteur pour faire valoir ses points de vue.

Le commissaire enquêteur Michel Cazaubon a rendu un avis favorable au projet de PLU, assorti de réserves et de recommandations.

La version finalisée du PLU d'Itxassou approuvée en mai 2023 aura intégré plusieurs des demandes individuelles rapportées par le Commissaire enquêteur ainsi que les réserves concernant les Opérations d'Aménagement Programmé.



**Vue de la plaine urbanisée d'Itxassou depuis le mont Atharri**

# Bizitegi zaharren berritzeko laguntza publikoa

# Bientôt une opération d'amélioration de l'habitat







**Itxassou s'est portée candidate pour la future OPAH (opération programmée d'amélioration de l'habitat) multisites portée par l'intercommunalité Pays Basque.**

Cette OPAH est une convention passée entre l'agglomération Pays Basque, l'État et l'Agence nationale de l'habitat (Anah) en vue de requalifier et de réhabiliter un ou des quartiers bâtis dans plusieurs communes du Pays Basque.

Le but d'une OPAH est de créer des conditions plus favorables pouvant inciter des mono-propriétaires ou copropriétaires ou propriétaires bailleurs, à investir dans l'amélioration ou la réfection de logements existants dans un périmètre précis.

Suite à une première phase de diagnostic menée sur plusieurs communes du Pays Basque, notre commune a été retenue pour la seconde phase : une étude pré-opérationnelle qui pourrait être lancée fin 2023 et qui devrait durer 10 mois.

Cette étude déterminera les solutions à apporter aux dysfonctionnements soulevés lors du diagnostic et définira les objectifs qualitatifs et quantitatifs à mettre en œuvre.

Cette étude permettra à l'OPAH proprement dite d'être dans un troisième temps instaurée pour une durée déterminée, généralement comprise entre trois et cinq ans, pendant laquelle des aides financières seront accordées par l'État (Anah), le Conseil régional, le Conseil général, la CAPB.

**Itsasuko herriak agertua zuen bere hautagaitza OPAH batean sartzeko, etxe zaharren arrimatzeko laguntza programa batean onartua izateko.**

OPAH hori konbenio bat da Euskal Herriko Elkargoa, Estatua eta ANAHren artean, eraikin zaharkituen arraberritzeko Euskal Herri huntako zenbait herritan.

Konbenio horren bidez, sustatzen eta laguntzen dira bakarkako etxejabeak eta etxejabe ainitzak, beren egoitza berek baliatzen dutenak edo alokairuan ezartzen, egoitza horien egoera hobetzerat herrietako eremu berezi batzuetan.
Iparraldeko herri zenbaitetan eginik izan den diagnoztikaren ondotik, gure herria atxikia izan da bigarren fasearentzat : 10 hilabete iraunen duen obra aintzineko ikerketa batentzat, 2023 ondarrean abiatuko litekeena.

Diagnoztikak agertu eskasen araberako proposamenak eskainiko ditu ikerketak eta mugatuko du zer nolako hobekuntzetarat heldu beharko den obrak bururatzerakoan.

Hirugarren fase bat onartua izaten ahalko da OPAH zahar berritze programa hortan, hiru edo bost urtetakoa, diru laguntzen ekartzeko Estatutik (ANAH), Eskualdeko Kontseilutik, Departamendu Kontseilutik eta Herri Elkargotik.

## Informatikari trebatzen hasi lagun giroan
## Découvrir l'informatique en groupe convivial

La fibre 64 a proposé un cycle de 4 séances de formation réparties sur 4 semaines en mars avril dernier pour découvrir gratuitement et simplement le numérique en petit groupe convivial.

Les participants ont appris les bases fondamentales de l'informatique sur ordinateur ou sur tablette et se sont initiés à l'usage d'internet.

Madame Laureen Gomez, médiatrice de la Fibre 64, a été à leur écoute, prenant le temps nécessaire pour rassurer, expliquer et répondre aux questions de chacun.

* Un grand merci à Mattin Indart pour son délicieux gâteau basque partagé le dernier jour !

Le CCAS envisage de proposer l'année prochaine des ateliers thématiques pour cibler des besoins particuliers.

Fibre 64 egiturak proposatu du 4 zatitan banatua zen formakuntza sail bat, martxo apirileko 4 asteetan barna, taldean eta dohainik ezagutzeko numerikoaren lehen urratsak.



Informatikaren oinarrizko jakitatea eskuratu ahal izan dute parte hartzaileek ordenagailu ala tabletetan, interneten erabilpenaren gutienekoa berenganatzen zutelarik.

Gomez andereak, Fibre 64eko bitartekaria, egon da parte hartzaileen entzule eta galdera guziei erantzule.

Esker beroenak Mattin Indart-i, azken egunean ekarri duen euskal bixkotxa ahotik ezin utziarentzat.

Itsasuko GEUZek tailer tematikoak proposa lezazke helduden urtean beharrordu bereziak kontutan hartuz

# Iguzki panelak erosteko elkartuz

**2021an, Itsasuko herriko etxeak deliberatu zuen kanpaña bat bultzatzea, iguzki panelak pausatzeko nahi zuten biztanleen teilatuetan. Lan hori Iener empresarekin egin genuen.**

Interesatuak zirenak, informazione bilkuretara konbitatuak izan dira. Gero I-ener enpresak estudiatu ditu bakotxaren beharrak eta enpresa batzu hautatu lana egiteko.

Kanpaña horren helburuak ziren :

- Biztanleek beren argia egitea, saltzeko edo berek konsumitzeko;
- Argi indarraren prezioak gorakadak jasaiten ditu eta bakotxak apaltzen ahal ditu gastuak;
- Elgarrekin erosiz, iguzki panelak merkeago kostatzen dira;
- Herri mailan, helburua da argi indar “berdea” edo ekologiko gehiago ibiltzea.

Gaur egun bilana eginez, hori emaiten du:
- 39 pertsona interesatuak jin dira bilkuretarat;
- 25 pertsonek beren kontsumoak bidali dituzte I-ener eri ikerketa bat egin dezaten;
- 18 doziera igorriak izan dira instalatzaileer;
- 15 debisa izenpetuak , 99,2kWc argi indarra fornituko dutenak (500m²);
- Horietarik jadanik 12 instalazio eginak dira 73,2kWc (400m²).

Itsasuar batzuk oino interesatuak badira iguzki panelak ezartzeko beren etxetan, izena emaiten ahal dute herriko etxean. I-ener enpresarekin har-emanetan ezarriko ditugu.

## I-ENER : energia herritaren esku

## l’énergie aux mains des citoyens

2014ko urrian sortu zen SAS I-ener sozietatea, helburu bezala harturik energia berriztagarrien ekoizpena herritarren esku hartzea. I-ener ek ez du loturarik enpresa handiekin, interes orokorra dauka oinarri.

Créée en octobre 2014, la SAS I-ENER est une société de production d’énergie citoyenne qui vise l’appropriation citoyenne de l’énergie en Pays Basque par le développement des énergies renouvelables.

I-ENER est indépendant des grands groupes, son action s’inscrit dans une démarche d’intérêt général.

# Achats groupés de panneaux photovoltaïques



Herriko etxearen gainean iguzki panelak

**En 2021, la mairie d’Itxassou décidait de lancer une campagne d’installation de panneaux photovoltaïques avec achat groupé grâce à l’aide technique de la société I-ener.**

Les personnes intéressées ont été invitées à des réunions d’information, ce qui a permis à l’entreprise I-ener de mesurer les besoins de chacun au vue de la consommation actuelle d’électricité. Des entreprises d’installation de photovoltaïque ont ensuite été présélectionnées en fonction d’un cahier des charges.

Les buts de cette campagne sont les suivants :

- Aider les habitants à être eux même producteurs d’électricité;
- Baisser les charges dues à l’énergie dans un contexte de flambée des prix de l’énergie;
- Diminuer le prix des installations par un achat groupé;
- Développer au niveau d’Itsasu la production et la consommation d’énergie renouvelable.

Le bilan de la campagne est le suivant :

- 39 personnes sont venues aux réunions d’information;
- 25 personnes ont envoyé leur consommation actuelle pour calibrer l’installation;
- 18 dossiers étudiés et envoyés aux installateurs;
- 15 devis ont été signés, représentant une production potentielle de 99,2kwc pour 500m2 de panneaux;
- Parmi ceux-ci, 12 installations ont été effectuées représentant une production potentielle de 73,2 kwc pour 400m2 de panneaux.

Si certains Itsasuar sont intéressés par l’installation de panneaux photovoltaïques, ils peuvent encore s’inscrire à la mairie d’Itsasu, nous les mettrons en contact avec l’entreprise I-ener.

# Herri erdiko karrika atseginak, lasaituak eta biziak

**Carte indiquant le nombre de véhicules par jour avec dispositif routier en vigueur**




**Trafics reconstitués et simulations des trafics réalisés à partir des comptages du CD64 de décembre 2022 et des comptages de la ville d'avril 2023.**

**Herri erdiko karriken gureganatzea eta eguneroko oinezko harat hunaten sustatzea gelditzen dira bide sentsu aldaketaren helburu nagusiak. Gisa hortan da aipatu hiru hitzetako lema hau : herri erdiko karrikak nahi ditugu atseginak, lasaiak eta biziak.**

Itsasuko herriko etxeak IDcité enpresari eskainia zion 2022 uztailean herri erdiko karriketan ezarri bide sentsu aldaketen ondorioen aztertzea.

IDcitéko Ludovic Chaleroux-ek tailer moduko bilkurak antolatu zituen herritarrekin.

Lehen tailer bilkura Sanokin egin zuen 2023 urtarrilean. Herriko Etxeak deituak zituen bide sentsu aldaketaren ondorioz gehienik agertu ziren auzo hunkietako herritarrak eta beste auzo edo eskola elkartetako ordezkari zenbait.

Aste zenbait berantago, Chaleroux jaunak beste bilkura bat antolatu zuen Itsasuko « indar biziekin » : ostalari, komertsante edo akanpalekuko arduradun, besteak beste.

Azken hitzordua berriki iragan da Sanoki gelan 2023ko ekainaren 22an, lehen bi tailer bilkuretako gomita guziak deitzen zituela elgarrekin Herriko Etxeak. Bidetan adituak aurkezten zuen hor aintzineko bi egonaldien bilduma eta ondotik 2022ko bide sentsu aldaketa horien egokitzeko molde ezberdin batzu.

Beribil kondaketak eta hauen abiadura neurtzeak eginik izan ziren 2022ko abendoan eta 2023ko apirilean. Emaitza hauei esker zehaztasunekin aztertu daitezke beribil harat hunatak herri erdiko bidetan. Gelditzen da beste kondaketa bat egiteko udako sasoinik jendetsuenean eskutan ukaiteko beribil trafikoaren panoramarik osoena urte guzirako.

Bizikletak ere bere leku betea ukan behar du karriketako ibilbidetan, ongi seinalatua, beribilekin partekatu behar duelarik ere.

Bide antolaketaren aldetik, jakina zen plastikozko pitzoek ez zutela luze irauterik, eta beharko zirela asmatu ingurugiroan ongi egokituko ziren hornikuntzak, ahal den guziez landarekiak lehenetsiz.

Tailer bilkuretarik eta beribil ala abiadura kondaketetarik honelaxeko arrangurak eta lehentasunak agertu dira herri erdiko karrikentzat :

- Herri erdiko karrika nagusian : eneguak mendratu bertako egoiliarrentzat;
- Irigoineko bidean : abiadura moteldu;
- Mokoxaineko bidean : beribil gutiago;
- Elizako bidean : oinez eta bizikletaz ibiltzea bermatu.

Helburu argi hauetarik landa bide sentsu aldaketaren norabide ezberdinak aurkeztuak izan dira 2023ko ekainaren 22ko tailer bilkuran :

1- Elizako bidea bi sentsutarat ezarri, beribil kurutzatzeak antolatuz eta oinezkoei lehentasuna emanez.

2- Elizako bidea bi sentsutarat + Larrondoko sentsu bakarra aldatuz : ahal den beribil gutiena uzteko Mokoxaineko bide hortarat hurbiltzen, zabalik atxikiz Ateka aparkalekurat joateko moldea.

3-Elizako bidea eta herri erdiko karrika nagusia bi sentsutarat, beribil kurutzatzeak antolatuz eta oinezkoei lehentasuna emanez

Sanoki gelako solasek orokorki adierazten zuten lehen proposamenaren interesa, zenbait ehun beribilez arintzen baitira herri erdiko eta Mokoxain aldeko bideak.

IDcitéko adituak nahitaezkoa dela jakinarazi du : bide antolakuntzaren landareztatzea, norabide panelekin laburbidez Itsasutik iragaiten diren beribilen gutitzea, eta Irigoineko bidean abiaduraren moteltzea.

Ondoko hilabetetako urratsak hauk izan litezke : 2023ko uda huntan baimentzea herriko etxean bide sentsu aldaketaren egokitzea, estudio bat manatzea bide antolakuntza eta landareztatzeari buruz, eta udazkenetik aintzina egokitze horien lekuan ezartzen hastea.

# Des rues accueillantes, apaisées et animées

**Le processus de réappropriation des rues du centre bourg et la pratique de la marche à pied sur les parcours du quotidien restent les objectifs phare de l'évolution du dispositif routier. Ainsi la règle des trois A a été énoncée pour les rues du centre bourg : elles doivent visées à être Accueillantes, Apaisées et Animées.**

Le dernier rendez-vous vient d'avoir lieu à Sanoki ce 22 juin 2023 avec des invitations envoyées par la mairie aux participants de ces deux rencontres ateliers. Une synthèse des réunions précédentes y a été présentée ainsi que des scénarii d'évolution du dispositif instauré à l'été 2022.

Des comptages de voitures et des enregistrements des vitesses pratiquées sur nos routes en décembre 2022 et avril 2023 permettent d'appréhender les flux et les vitesses avec objectivité. Reste qu'il faudra réaliser de nouveaux comptages en pleine saison estivale pour avoir un panorama à l'année des données de circulation motorisée sur les routes du centre bourg.

Le vélo devrait également trouver sa place, avec des cheminements privilégiés, le plus souvent sur des voies à partager avec les véhicules motorisés.

Coté aménagements urbains, il apparait clairement que les plots étaient bien là de façon provisoire, et que les aménagements futurs devront chercher à s'inscrire harmonieusement dans le paysage, en privilégiant chaque fois que possible le végétal.



**Exemple de voie piétonne et de balisage végétal (Près Balaki)**

Les échanges en ateliers et les données de comptage flux et vitesses ont révélé les préoccupations et priorités suivantes pour les principales rues du centre bourg :



Schéma de principe d'implantation de balisage végétal

- Karrika Nagusia centre bourg : réduction des nuisances pour les riverains
- Irigoineko bidea : réduction de la vitesse
- Mokoxaineko bidea : moins de voitures
- Elizako bidea : confort des piétons et des cyclistes

A partir de ces objectifs, plusieurs scénarii d'évolution du dispositif de circulation ont été présentés lors de la réunion du 22 juin 2023 :

- scénario 1 : Elizako bidea à double sens : aménagements et priorité aux piétons sur les côtés, et une voie de circulation avec des zones de croisement (alternat). Le reste du dispositif actuel restant inchangé.

- scénario 2 : Elizako bidea à double sens (idem N°1) + sens unique de Larrondoko bidea jusqu'au parking Ateka : le sens unique de Larrondoko bidea est inversé pour supprimer le flux passant arrivant de la route d'Espelette. L'accès au parking d'Ateka est maintenu pour les véhicules provenant de Karrika Nagusia

- scénario 3 : Elizako bidea à double sens + Karrika Nagusia à double sens : aménagements et priorité aux piétons sur les cotés et une voie de circulation de véhicules motorisés avec des zones de croisement (alternat).

Les divers échanges dans la salle de Sanoki ont plutôt exprimé l'intérêt d'expérimenter le scénario 1, qui permet de soulager le centre bourg d'une partie du flux automobile, sans surcharger significativement Irigoineko bidea, et en aménageant de la meilleure façon Elizako bidea au plus tôt de Balaki à Iguzkian.

La mission du cabinet IDcité décline trois invariants qui seraient les suivants : la végétalisation des rues, le jalonnement et la dissuasion du transit local, les aménagements de réduction de la vitesse en particulier sur Irigoineko bidea et Panekauko bidea.

Concernant le calendrier des évolutions à venir : nouveau comptage et confirmation des choix de scénario sur l'été 2023 par la mairie, commande d'une étude de projet d'aménagements au plus vite et si possible à l'automne le début de la mise en œuvre des options retenues.

# Kirola, elkarbizitza eta herri giroa

# Du sport, de la vie sociale et des convivialités



Insertion du projet défini par Hemen architecture

**Balakiko eraikitze baimenak 2023ko apirilean eskatuak izan dira eta obra enpresak hautatuak eta kontratatuak izan litezke 2023ko udazkena aintzin.**

Zenbat bide iraganik Balaki dozier hunentzat 2021eko abendoan eskoletako jantegian egin zen bilkura hartarik, Alex Filiatreauren Apitropik iker bulegoak animatu zuena.

Trinketaren konpontzeak erran nahi du sendotzen eta azkartzen dela betunezko eraikuntza zaharra. Hegatzeko fibro zimentezko estalgia kendua izanen da metalezko panel isolatuez ordezkatua izateko. Hauen gainean finkatuko dira ondotik iguzki panelak. Trinketaren barnekaldeak ez du berrikatze handiegirik ezagutuko, nahiz gibeleko taula sar-ateratzeko moldean izanen den, eta kantxaren zola berritz hartua hobekienean. Herriko Etxeak kudeatuko luke zuzenean pilotan aritzeko bakarkako eskaera guzia, Itsasuarrak pilota elkarteak balukeelarik beharren araberako konbenio berezia.

Eskalada gelak 144m2ko eremu estalia eskainiko du trinketaren tirada berean, errebotearen gibelean. Sartzeko ateak bere aldetik ukanen ditu ezkalada gelak, nahiz Balakiren ipar partean eraikiko diren aldagelak pilotak eta ezkaladak baliatuko dituzten biek. Eskalada gela Arroka elkarteak kudeatuko du egunerokoan, eskalada baita herriko elkarte berri hunen gaitasuna.

Ehun metro karratuz gutixagoko eremua luke hegoalderat eraikiko den aktibitate ainitzeko gela berriak. Itsasuar multzo bat ari da lan eta lan ikertzeko gela horrentzat nolako kudeaketa eta zer nolako aktibitateak. Hastapeneko egitasmoa izan da belaunaldien artean jakitate trukatzeko gune bat eta sorkuntza kolektibo ezberdinen mintegiaren altxatzea.

Balakiko ostatu partea kanpoz osoki itxuraldatuko da baina lehengo eremu berdintsuan egonez. Gehienik sukalde xoko bat eta bar mahain bat gehituak izanen dira lehengo eremuari datxikola. Zehaztekoa da oraindik nola kudeatuko den Balakiko ostatu partea.

Balakiren itzulia ibilbidez eta berdegune atseginez apaindua izanen da.

**Le permis de construire du complexe Balaki a été déposé en avril 2023, et les entreprises pourraient être engagées avant l'automne 2023.**

Que de chemin parcouru sur ce dossier Balaki depuis la soirée de présentation des ateliers participatifs de décembre 2021 animé par le bureau d'étude Apitropik et Alex Filiatreau.

La réhabilitation du trinquet lui-même consistera à assainir et consolider la structure béton du bâti existant. La toiture serait reprise avec le remplacement de la couverture en fibrociment par des panneaux isolants en métal, sur lesquels seraient installés des panneaux solaires. L'intérieur de la cancha ne verra pas de modification majeure, si ce n'est la possibilité de retirer la planche arrière et la reprise du sol de l'aire de jeux. La gestion serait assurée directement par la mairie pour les réservations des créneaux aux particuliers, et l'école de pelote itsasuarrak bénéficierait d'une convention spécifique.

La salle d'escalade de 144m2 de surface couverte viendrait dans le prolongement immédiat des volumes du trinquet, sur l'arrière du mur de frappe. Les accès de la salle seraient indépendants, même s'il est prévu que les vestiaires aménagés au nord de Balaki serviraient à la fois aux activités de pelote et d'escalade. Ce site d'escalade serait tenu au quotidien par les membres de l'association Arroka nouvellement créée sur la commune et dédiée aux activités d'escalade.

La salle multi-activités occuperait à peine moins d'une centaine de mètres carrés sur le flanc sud du Balaki. Un groupe d'itsasuar s'efforce de définir collectivement le fonctionnement et les activités multiples qui pourraient s'y déployer. L'objectif de départ reste bien évidemment de faire vivre un lieu intergénérationnel d'échanges de savoir faire et de créations collectives diverses.

L'espace bar restauration sera largement renouvelé dans son aspect extérieur mais devrait retrouver une surface intérieure équivalente à l'existant. S'y ajouteront quelques mètres carrés d'espace cuisine et tout autant d'espace réservé au comptoir du bar.

Le reste de la parcelle qui couvre 2000m2 sera essentiellement dédié à des espaces verts et à des sentiers de déambulation.

# BALAKIDE, elgarrekin egiteko gune bizi bizia
# Un lieu ouvert et animé

**Amestu dezagun Balaki trinketa 2025ean**

**Ostatu terrazan musika inprobisaketa saio bat, herriko garagardo baso baten inguruan burraso batzu, haurrak zurezko ohizko joko batzuekin jostetan haratxago, gazte multxo bat musean ari.**

Ostatuko barretik jende batzu pilota partida bati begira edo eskaladan trebatzen ari direnei.

Balaki sahetseko gela berrian, sukalde tailer bat belaunaldi ezberdinak elkartzen dituena. Kanpokaldean, lagun batzu bizikleta konpontzen tresna kutxa bakarretik.

Hamar bat herritarretako multxo ttiki bat gira bi astetarik elkartzen girenak zenbait hilabete hauetan gogoetatzeko Balakiko herenguneak zer itxura izan lezakeen.

Amesten hasia dugu gogoeta kolektiboaren tresneria bereziarekin, eta gomita luzatzen dautzuegu gurekin aintzinatzerat hurbiltzeko.

Balaki izan liteke herriko gune ideki eta animatu bat, osatzen duen lagun giro bakotxak biziarazten duena, elgarrekin kudeatuz, bakotxari utziz, belaunaldi guziak nahasiz, bisitari edo erabiltzaile, bere lekua kausitzen eta bakarkako ala elkarrekilako sorkuntzak sustatzen.

Transmizio, partekatze, hartu eman leku, partaide bakotxak jarraikian beretik eman bait lezake leku amankomunaren erabiltzeko eta biziarazteko. Gune bat zuhurtziaz josia, lehenesten dituena lurraren eta bizitzaren lokarriak.

Elkarte ostatua, artista tailerrak edo konponguneak, ikasteko edo telelanerako eremua, animazione lekua….. jalgi da zenbait ideia !

Gogoeta lan horrek interesatzen bazaitu, dudamudarik gabe hurbil zaitez : tiers.lieu.itsasu@gmail.com







**Rejoignez la création d'un tiers-lieu au trinquet Balaki!**
**Imaginons le trinquet Balaki en 2025…**

**Le trinquet Balaki pourrait être un lieu ouvert et animé, où chaque entité qui le compose et l'anime, travaille ensemble pour permettre à chacune et chacun, toutes générations confondues, visiteurs et usagers, de trouver sa place et de déployer sa créativité individuelle et collective.**

Un lieu de transmission, de partage, d'échange et de mutualisation où chaque partie prenante s'engage durablement pour faire vivre et valoriser ce bien commun. Un lieu invitant à la sobriété et privilégiant le lien à la terre et au vivant.

Une terrasse animée par une jam session, des parents autour d'un verre de bière locale, des enfants jouant à des jeux traditionnels en bois, un groupe de jeunes jouant au mus.

Des personnes, depuis le bar, regardent une partie de pelote et l'initiation escalade.

Dans la salle multi-activités, un atelier cuisine intergénérationnel est proposé. Dehors, quelques-uns réparent des vélos avec la boîte à outils commune..

Nous sommes un petit groupe d'une dizaine de personnes du village à nous réunir toutes les deux semaines, depuis quelques mois, pour réfléchir au projet de tiers-lieu dans le trinquet Balaki.

Nous avons commencé à l'imaginer avec des outils d'intelligence collective, et nous vous invitons à venir le penser avec nous!

Café associatif, ateliers artistiques ou de réparation, espace pour étudier ou télé-travailler, animations, … plusieurs idées sont sorties !
Si ce travail de réflexion vous intéresse, alors n'hésitez pas à nous rejoindre. Contact : tiers.lieu.itsasu@gmail.com






# Bizitegi eskasari buru egiteko nahikeriaz
# Une volonté de contribuer à répondre aux besoins de logements



Mathiot andereak EPFLi saldu dion etxea Panekau bide bazterrean

**Salgai ezarria zen 1960 urtetako etxetto bat le Bon coin internet gunean. Agertzen zen prezioak xintxoa iduri zuen, eta pentsa zitekeen elkargo publikoek eskura zezaketela.**

**Euskal Herri hunek jasaiten duen alokairu egoera bortitzak behartzen du baliatzerat alokairu sail hortan esku publikoaren hartzeko parada bakotxa.**

Jabeak, Mathiot andereak, gure herrialdetik urrundu nahi zuen baina gogoan zuen behar zuela ahalaz ontasuna prezio zuzen batean saldu eta Itsasuko edo hurbileko erosleak kausitu.

Etxea salgai ezarri bezain laster Itsasuko Herriko Etxerat hurbildu zen saltzailea jakinarazteko nahiko zuela bere saltzapenak hemen gaindiko alokairu beharren betetzen parte izan zezan.

Herriko Etxeak laster ulertu zuen bazela bizitegi zenbaiten eskuratzeko parada eta proposatzen zion herriko kontseiluari EPFL erakundearen ardurapean ezartzea Panekau karrikako etxea eta lur eremu guzia. Aho batez onartu zuen kontseiluak eta negoziatzea EPFLaren esku utzi.

Ontasun guzia 400 000€tan erosi ahal izan du EPFLak Herriko Etxearen kondurako, ongi izaritu ondoan arriskatu kapitala amortizatuko zela zenbait bizitegi berri altxatuz eta prezio jasangarrian salduz inguruko jendeei.

Ondoko hilabetetan eginik izanen da informazione zabaltze berezi bat bizitegi berriez interesatuak izan litezken herritarrei buruz.

**Une villa des années 60 était mise en vente sur le bon coin.**

**Le montant « raisonnable » affiché sur l'annonce permettait de croire à une possible intervention de la collectivité locale.**

**La crise du logement que subit le Pays Basque incite fortement à ne laisser passer aucune opportunité de créer du logement en maitrise publique.**

La propriétaire Madame Mathiot voulait quitter la région mais avait à cœur de vendre le bien à un juste prix et mieux encore à des acquéreurs d'Itxassou ou des environs.

Très vite après, la propriétaire se rapprochait de la mairie pour signaler qu'elle souhaiterait que le bien puisse contribuer à répondre aux besoins de logement local.

La municipalité saisissait l'opportunité de pouvoir maitriser du logement et proposait au Conseil Municipal d'impliquer l'établissement public foncier local (EPFL) dans l'acquisition de la parcelle et de l'habitation de Panekauko bidea. Le conseil approuvait la démarche à l'unanimité et confiait la négociation à l'EPFL.

L'acquisition du bien par l'EPFL pour le compte de la commune a été conclue pour un montant de 400 000€, après s'être assuré de pouvoir amortir le capital d'achat en y créant plusieurs logements qui seraient cédés à des prix accessibles aux revenus moyens et assortis de clauses anti-spéculatives.

Une diffusion d'informations plus ciblée sera bientôt lancée à destination des candidats intéressés par une telle proposition d'habitation à deux pas du centre bourg et des principaux commerces et services du village.

# Etablissement public foncier

2005ean sortua izan da Iparraldeko EPFLa, erantzun bat ekartzeko lurraren inguruko espekulazio giro nahasiari.

EPFLari eman zaio helburu bezala eraikuntza lurraren eta bizitegien merkatuaren erregulatzen entseatzea herriek aintzina ereman ahal izan ditzaten interes orokorreko egitasmoak.

Diru bideak gutitzen ari diren garaian, eta Euskal Herriak ahultzen segitzen duelarik, hautetsiek badute EPFLaren laguntza eramaiteko eraikuntzako lurrari buruzko politika bat zuhurra, jasangarria eta iraunkorra.

L'EPFL Pays Basque a été crée en Décembre 2005 pour répondre à une situation foncière sélective pouvant à terme remettre en cause les équilibres sociaux, économiques et culturels du Pays Basque.

En effet, dans un contexte de consommation des espaces naturels et agricoles anarchique et croissante, de pénurie de terrains pour la construction de programmes de logements accessibles et de convoitise exacerbée de la part de certains acteurs privés, l'EPFL Pays Basque s'est vu confié la mission de réguler les marchés fonciers et immobiliers afin de permettre à l'ensemble des collectivités locales de mettre en œuvre leur projet de territoire.

Il appartient donc aux collectivités locales du Pays Basque de solliciter l'EPFL pour des interventions privilégiant l'intérêt général et contribuant à apporter une réelle plus value à leurs projets de développement.

En effet devant la raréfaction annoncée des ressources financières et dans un contexte qui fragilise progressivement le Pays Basque, les élus locaux doivent proposer à travers l'EPFL une politique foncière économe, rationnelle et durable.

# Kurutzaldiaren parte herriak erosi



**Kurutzaldia XIXgarren mendeko etxe handi bat da elizaren eta haurtzaindegiaren artean kokatua. Denboran egon izan da hor Posta eta geroago Arambel andereak atxikitzen zuen saltegia. Itsasuko Herriko Etxea baliatu da legeak ematen dion erosteko lehentasunaz kontseiluko kide guzien baimenarekin.**

Gales herrialdeko bikote batek eskuratua zuen Kurutzaldea 1987an, itsasuar batek erosi ziotela etxearen parte bat bizitegi zenbait egokitzeko. Itsasuko Herriko Etxeak erosi berri du Galestarek atxikia zuten ontasun partea herriko haurtzaindegiaren kanpoko eremuaren zabaltzeko eta alokairu jasangarrian izan litezkeen bizitegi batzuen eskaini ahal izateko.

Ontasun sal erospen guzien berri eman behar dute notarioek Herriko Etxeeri hiritartu eremuentzat eta SAFERari oihan edo laborantza eremutan klasatuak diren funtsentzat. Molde hortan du Itsasuko Herriko Etxeak deliberatu erosteko lehentasunaren baliatzea tratua egina zen prezioan, 300 000 eurotan bazirelarik 200m2 eraikin eta 1800m2 kanpo eremu.

Aurtengo udatik zabaldua izanen da haurtzaindegiko kanpo eremua Kurutzaldeko itzal ederreko parke parte baterat, herriko haurren gozamenerako.

Etxe partearen egokitzeak hartuko du behar den denbora, partaideak eta diru laguntzak kausitu ondoan.





# La mairie achète une partie de Kurutzaldia





**Kurutzaldia est une grande bâtisse de la fin du XIXème siècle, située entre la garderie municipale et l'église. Elle a abrité la poste et plus tard l'épicerie que tenait Mademoiselle Arambel.**

**La mairie d'Itxassou a fait valoir son droit de préemption en novembre 2022 à l'unanimité de son conseil municipal.**

Le couple de gallois qui l'avait acquise en 1987 en avait déjà cédé une partie à un itsasuar qui y avait crée des logements.

La collectivité locale vient d'acquérir le reste de la propriété pour pouvoir agrandir l'espace extérieur de la garderie municipale et augmenter l'offre de logements accessibles à prix maitrisé.

Toutes les transactions de biens immobiliers sont transmises par les notaires aux mairies pour les secteurs urbanisés et à la SAFER pour les secteurs des zones agricoles et naturelles.

C'est dans ce cadre que la mairie d'Itxassou a décidé d'intervenir sur la vente d'une partie de Kurutzaldia au prix de la transaction en cours, c'est-à-dire 300 000€ pour 200m2 de bâtis et 1800 m2 de surface totale.

Une partie du parc ombragé de Kurutzaldia viendra dès cet été 2023 ouvrir l'espace asphaltée de la garderie municipale, pour le plus grand bonheur des enfants du village.

L'aménagement de la partie bâtie prendra le temps qu'il faudra pour décider d'un réaménagement, trouver des partenaires et des financements.

# ATARIA
# Irigoinbeherea Atariaren egoitza
# La Nive, centre de formation, de ressources et de rencontres



**Etablissement appartenant toujours à l'UGECAM**

**Itsasuko Herriko Etxea engaiatu da Atariako proiektu eramaileen aldean sustengu ekartzeko formakuntza eta jakitate partekatuari dedikatua litekeen leku baten altxatzeko.**

Irigoinbeherea lehengo arta etxea izan liteke Atariaren egoitza leku.

« Ataria zuzentzen da Euskal Herria herrialde arrakastatsua edo itxura ederreko lurraldea baino gehiago dela uste dutenei » irakurtzen ahal zen Atariaren internet gunean

Ataria Elkarte bat da aztertzen duena formakuntza eta jakitate partekatuaren garatzeko gune baten beharra. Bateratzen ditu itxura eta ibilbide profesional ezberdinetako kideak, biziki motibatuak beren herrialdeko kulturaren ezagutarazteaz, hizkuntzaren inguruko jakitate eta esperientziaren zabaltzeaz, beren herrialdeko biziaz eta bertako egoera sozio - ekonomiaren garapenaz.

Ataria elkarteak bere formakuntza proiektu asmoarentzat nahi luke kokagune berezi bat « gure utopia errealistan, nahi ginuke kokagune deigarri bat, izan litekeena formakuntza etxe, baitaere jakitate trukaketa gune eta elkargune. Batzuek erran lezakete ausnarketa gune » zion Filipe Mayte Atariako lehendakariak.

Itsasuren hautua ez da kasualitatezkoa. « Ardatzgune bat da Itsasu. Iparralde barnekaldearen ixurian gira, daukan aberastasun guziarekin, bada ere Itsasu hirigunekoek errexki hurbiltzen ahal duten herria. Hurbilean bada treinbide bat baliatzen ahal dena, eta lurralde euskalduna da ». Ataria proiektoa aurkeztua izan da Herriko Kontseiluari . « Herriko Etxeak baikortasunez ikusten du eta segitzen gaitu proiektu muntaketan »

**Le conseil municipal d'Itxassou s'est engagé aux cotés des porteurs du projet ATARIA à accompagner les acteurs du territoire qui sont en train d'élaborer collectivement un centre de ressources et de formation.**

L'ancienne maison de repos La Nive-Irigoinbeherea pourrait servir de point d'ancrage à ATARIA.

« ATARIA s'adresse à tous ceux pour qui le Pays Basque est davantage qu' un territoire attractif ou une belle image de marque » peut on lire sur la page d'accueil de son site internet.

C'est une association qui travaille l'idée du développement d'un centre de ressources et de formation professionnelle porté par des personnes issues de tous horizons et profils professionnels, passionnés par la transmission de leur culture, expériences et savoir faire autour de la langue, du territoire et des ses activités socio économiques.

L'association Ataria, porteuse d'un projet de formations, aimerait avoir son propre lieu. « Dans notre utopie que l'on voudrait réaliste, nous voudrions un lieu emblématique, qui soit centre de formation, de ressources, de rencontre. Certains diraient un lieu inspirant », indique Philippe Mayte, président d'Ataria.

Le choix d'Itxassou n'est pas un hasard. « C'est un lieu-pivot. On commence à basculer au Pays Basque intérieur, avec toute la ressource qu'il a, mais c'est aussi un lieu jusqu'où l'urbain pourra aller sans que cela lui soit trop contraignant. Il y a la voie ferrée, avec le TER qui s'arrête à Itxassou. Et puis, c'est un lieu euskaldun. » Le projet a déjà été présenté à la municipalité. « La mairie y croit, elle nous suit dans la démarche. »

ATARIA
ACTEUR DE TRANSMISSION

# Hurbileko osasun zerbitzuak eta bizitegi erosgarri berriak Ordokian

# Projet d'un pôle santé et de nouveaux logements sur Ordokia

**Itsasun jarria zen bi medikuetarik batak hetsi du bere gabinetea joateko Uztaritzeko mediku talde batekin lan egiterat.**

**Polemika berririk hazi gabe, itsasuarrek jakin behar dute gauzak nola gertatu diren egiazki.**

2022ko primaderan, herriko etxeko hautetsiek, itsasuko bi medikuek eta hiru farmazialariek adostasun bat atxeman zuten Ordokiako arduradunarekin osasun etxe baten altxatzeko, Ordokian eraiki gabe gelditzen den eremu partean.

Herriko hautetsiak, arranguratuak izanki mediku zerbitzuen hurbilenean eskaini beharraz herritarrentzat , lehiatu dira 2023ko hirigintza planean ezartzeaz Ordokiako eremu berezi bat osasungintzari dedikatua.

Hirigintza plan berriaren arabera, Ordokian eraikitzeko gelditzen den OAP eremuaren beste parte bat etxegintzari dedikatua izan da, bere bizitegi kolektibo, erdi kolektibo eta bakarkako multzatuekin. Eremu parte hortan 8 bizitegiraino eraikitzen ahalko dira, BRS modukoak, jabetza pribatuari eskainiak irabazi ertainak dituzten herritarrentzat.

Baliteke osasun etxearen bultzatzailen eta Ordokiako arduradunen arteko tratuak kokaturik egon direla lurraren prezioaren gatik.

Zuzenkontrako akusapenei ihardesteko, herriko hautetsiek agertzen dute Claude medikua herriko etxean entzuna izan dela 2020ko udaz geroztik, eskatu duen aldi guziez, mediku talde baten egoitzaren lur eremu eskaera aipatzeko. Lur eremu batzu proposatuak ere izan zaizkio hirigintza planak eremu eraikigarriak finkatu dituenetik.

Beharko ote zuten gure herriko etxeak eta Herri Elkargoak laxoago izan bizitegientzat atxikia den eremu hortan Ordokiako arduradunek merkeago eskaini ahal izateko osasun etxerako lur eremua?

gure ardura publikoak behartzen gaitu lehenik herritarrek erosten ahal dituzten bizitegiak eraikitzeko eremuen arautzerat, hurbilenean osasun zerbitzuak bermatzerat bezala.

itsasuko herriko etxeak badio herrian medikuak behar direla herritarretarik hurbilenean, eta lehiatzen da mediku berrien etor arazten , osasun etxeko proiektoa eramaten dutenekin batera. Bide beretik ahal eginak eginen ditu osasun saileko artatzaile gehiago hurbiltzen laguntzeko Itsasurat.



**Pôle Ordokia nombreux services de santé : pharmacie, infirmières, kiné, ostéo, orthophoniste...**

**L'un des deux médecins généralistes qui exerçait sur Itxassou a fermé son cabinet médical pour rejoindre un groupe de médecins installés sur Ustaritz.**

**Sans nourrir de nouvelles polémiques, les itsasuar ont le droit de connaitre ce qui s'est réellement passé.**

Au printemps 2022, mairie, médecins et pharmaciens d'Itxassou, et représentante de la promotion Ordokia avaient trouvé ensemble un accord pour envisager un nouveau bâtiment qui accueillerait un cabinet médical de groupe et une pharmacie neuve sur l'entrée de la parcelle qui reste à aménager à Ordokia.

La municipalité, consciente de l'importance de disposer des services de santé au plus près des habitants, s'est efforcée de faire inscrire au PLU 2023 une zone d'implantation d'équipements de santé dans ce secteur d'Ordokia déjà investi par les commerces et les services.

Selon les prescriptions du nouveau PLU, une deuxième partie de la parcelle aménageable de cette OAP d'Ordokia est qualifiée en zone d'implantation de logements collectifs, intermédiaires ou individuels groupés. Sur cette partie d'Ordokia, pourront être construits jusqu'à huit logements, tous en Bail Réel Solidaire (BRS), c'est-à-dire en accession à la propriété et réservés à l'achat pour des revenus modérés.

Les négociations entre les porteurs d'un pôle médical et les représentants de la promotion Ordokia ont peut être coincé un temps sur le montant de la transaction du terrain.

Aux injustes accusations, les élus de la municipalité confirment avoir répondu présents depuis l'été 2020 à toutes les sollicitations du docteur Claude sur des questions de recherche de terrain pour installer un cabinet médical de groupe. Plusieurs emplacements avaient même été suggérés dès lors que le PLU a précisé les zones potentiellement urbanisables.

Aurait-il fallu que notre collectivité soit moins exigeante sur les règles d'aménagement de la parcelle dédiée au logement pour que le promoteur soit plus conciliant sur la parcelle réservée à la maison médicale?

Notre responsabilité publique impose de se préoccuper en priorité de l'accessibilité au logement des habitants de la commune, tout autant que de favoriser pour eux la proximité des services de santé.

La mairie d'Itxassou a toujours affirmé l'intérêt d'avoir plusieurs médecins sur la commune, et s'implique activement au recrutement de médecins généralistes, comme elle est prête à favoriser l'installation d'autres acteurs du monde médical.

# Harremanak berritz lotu / Itsasu Etxauri c'est reparti



Xan estevecorenari omenez

Etxauri eta Itsasu herrien arteko trukaketa segitzearen karietara, Etxaurri haraneko ordezkaritza bat Itsasuko hautetsiekin bildu zen 2023ko urtarrilean, bi herrien arteko loturak nola gara zitezkeen elkarrekin aipatzeko. Denak bat etorri dira elkarteak direla harreman horien dinamika segurtatzen eta elikatzen ahal dutenak, horren froga da Itsasutik elkarteak egin lana uztartze horren abiatzean.

Solasaldian gogoratu dute Covid garaia baino lehen marrazki lehiaketa bat antolatu zutela bi herrietako ikasle guzien artean, Itsasuko Xan Estevecorenaren ekimenez. Beraz, oraindik hunkitu gabe zauden konposizio ezberdin hauek bilduak izan dira marrazkien patxwork bilakatzeko.

2023ko ekainaren 10ean, Etxaurriko pesten kari, margolan hau Estevecorena andereari eskainia izan zaio, 2021ean hil eta Etxauri-Itsasu hurbilketaren eragile ezaguna izan zen Xan senarraren omenez.


Mémorial des fusillés de la guerre de 1936 à Etxauri

Dans le cadre de la poursuite des échanges entre les villages d'Etxauri et d'Itxassou, une délégation de la vallée d'Etxauri a rencontré les élu.e.s d'Itxassou en janvier 2023 pour évoquer ensemble comment pouvaient être développés les liens entre les deux communes. Tout le monde s'est accordé sur le fait que ce sont les associations qui peuvent assurer et nourrir la dynamique de ces relations, preuve en est du travail réalisé par Itsasutik au démarrage de cet échange.

Au cours de la discussion, ils se sont rappelés qu'avant la période Covid, un concours de dessins avait été organisé entre tous les élèves des deux villages à l'initiative de Xan Estevecorena, habitant d'Itsasu. Ces différentes compositions encore intactes ont donc été rassemblées pour en faire un patchwork de dessins.

Le 10 juin 2023, lors des fêtes d'Etxauri, ce tableau a été offert à Mme Estevecorena, en hommage à son mari, Xan, décédé en 2021 et acteur reconnu du rapprochement Etxauri-Itsasu.


**Rencontre de juin 2023 au fronton d'Etxauri**



Champ de piment anéanti

# Harri uharrik itsusiena

**Goizegi da oraingoz laborantzako kalteen ebaluaketa zehatzaren egiteko, baina lehen ordutik argi zen biper eta barazki alorrek uzta galtze handiak dituztela, arto alor landatu berrietan edo moztekoak ziren belarretan bezala.**

**Gure eskualde hauetan ez denez alor edo pentzeen axurantzeko molderik, esperantza bakarra botere publikoen laguntzatik baizik ez da jiten ahal.**

Laborariak beti beldurtzen dituen harri erauntsia lehertu da Itsasu eta inguruko herrietan 2023 ekainaren 20an, aratsalde hastapenean. Kalte larriak badira etxaldetan eta Itsasuko etxe askotan. Herri guzia guti aski hunkia izan da

Harri erauntsi bat bortitza hamabost hogoi minutaz kanpoko alor eta baratze guziak suntsitu dituena. Bizitegietako edo etxaldetako teilatuak izan dira han hemen berdin azkarki joak, hauetan gero nahitaez euri urek barnetan makurrak eragin dituztela.

Bidean zabiltzan edo aparkatuak zauden beribil guziek maskildurak dituzte harri adarrak atxeman zituen ordutik.

Uholdeka jautsi ziren urak berehala pentzetarik karrikan barna, berriki landuak ziren alorretako lurrez beterik , eta lur azpiko ur hodietarat ezin helduz, haizearen gatik hostoz tapatuak baitziren urbide gehienak.

Bakotxa ibili zen erne ernea lehentasunen ondotik, eta luzagabe elkartasunak agertzen ziren familiatik edo auzoetarik.

Axuratuak ziren kalte guziek ordainduak behar lukete, tenorez eginak badira deklarapenak. Gelditzen da halaere ordaintzeko gutieneko diru parte bat, asko axurantza etxetan aski gottorra.

# 20 minutes de grêle et des torrents de boue

**Il est encore trop tôt pour faire un bilan objectif des pertes chez les agriculteurs mais on peut déjà affirmer qu'elles seront très importantes sur les productions de piment d'Espelette et de maraichage, comme sur les cultures de maïs et les récoltes de fourrages.**

**L'activité agricole de nos régions ne permettant pas d'assurer individuellement les parcelles de cultures ou de fourrages, le seul espoir de dédommagement viendra du fonds des calamités agricoles.**

La grêle toujours redoutée par les agriculteurs en particulier, est tombée sur Itxassou et les villages voisins en milieu d'après midi du 20 juin 2023. Les dégâts sont importants sur les fermes et chez les particuliers. Toute la commune a été concernée à des degrés divers.

Un orage de grêle d'une rare violence a réduit à néant toutes les cultures et jardins en quelques quinze à vingt minutes.. Toitures de maisons et couvertures d'équipements agricoles ont parfois été sévèrement impactées, avec forcément des infiltrations d'eau qui altèrent rapidement les locaux.

Toutes les carrosseries des voitures qui étaient sur la route ou en stationnement sur le passage de l'averse ont été cabossées.

Des trombes d'eau ont immédiatement dévalé sur les champs et les rues, emportant souvent la terre des cultures récemment installées et ne pouvant s'évacuer par les réseaux dédiés rendus inaccessibles à cause des bouchons de feuilles arrachées par la grêle et le vent.

Chacun aura couru ensuite au plus pressé et il n'aura pas fallu longtemps pour que les solidarités familiales et de voisinage s'organisent.

Tous les biens assurés seront dédommagés dès lors que les déclarations aux assurances seront effectuées dans les délais. Reste quand même des niveaux de franchise élevés pour certains véhicules ou autres biens assurés.







# Zenbat laborari gelditzen Itsasun ?

**Hirigintza Planaren karietarat, 2020an, etxalde guzien egoeraren inkesta bat eginik izan zen.**

Gisa hortan dira kondatzen ahal 60 bat laborari, batzuk lanbide bakarra zutela, gainerakoek beste ofiziorik bazutela aldean. Etxalde guzietan ez da segida osoki bermatua laborantzarentzat, beraz Herriko Etxeak kontu handiz begiratzen du gazte edo helduago bakotxaren laborantzan instalatzeko xedeari.

Joan den urtean, galdezkatu dira baitaere itsasuko biperreko sasoilariak enplegatzen dituzten etxaldeak, ikusteko zer aterabide bazen atxemanik edo atxemaitekorik sasoilarien alokairua hobetzeko. Mementoz, Herriko Etxeak ideki ditu dutxa publikoak sasoilariei, berezikiago Itsasun lan egiten dutenei eta beren kamionetan bizi direnei.

Mendiko alhagien baliatzeko araudi bereziak finkatu dira 2021az geroztik Artzamendi eta Mundarraineko mendietan, herriko ala auzo herriko kabalen alha lekuen erabilpenak erregulatzeko. Baitezpadakoa agertu da bereziki animalien ezagutzeko neurrien hartzea, lepokoen ordez batzuetan larruan markatzea erabili behar zelarik.

Azken hiru urteetan lanak segitzen du bilkura jarraikiekin mendiaren erabiltzaileen artean eta GP ko kideekin.

Bilkura horietarik agertu zen Artzamendin beharko zirela kabalen edanarazteko oporrak eta Mehatsen beharko zela korale bat egokitu kabalen biltzea errexteko eta behar ordutan artatzeko.


De grands espaces que le pastoralisme entretenait

# Une soixantaine de paysans à titre principal ou secondaire

**En 2020, dans le cadre de l'élaboration du PLU, nous avons réalisé une enquête auprès des agriculteurs d'Itxassou.**

Cela nous a permis d'identifier une soixantaine d'agriculteurs à titre principal ou secondaire. La suite dans les exploitations n'est pas toujours envisagée avec une activité agricole, ainsi, la Mairie reste attentive à toute opportunité qui permettrait l'installation d'un jeune ou moins jeune qui porte un projet agricole.

L'année dernière, à la demande des producteurs de piment d'Espelette, nous avons aussi sondé les exploitations concernées par le logement des saisonniers sur les solutions qu'ils avaient déjà trouvées ou celles qu'ils pouvaient envisager.

La mairie a pour sa part mis à disposition des douches municipales pour les saisonniers qui vivent en véhicule aménagé et qui travaillent à Itxassou.

Le règlement d'estive des massifs du Mondarrain et de l'Artzamendi, a été mis en place dès 2021, pour essayer de réguler l'utilisation de la montagne avec les villages voisins de Espelette, Ainhoa et Bidarray. Quelques points d'ajustements concernant notamment le marquage des animaux ont été nécessaires. Depuis trois ans, le travail continue avec des rencontres régulières en Mairie avec les membres du Groupement pastoral et les transhumants. De ces rencontres est née la nécessité de fixer des points d'abreuvements pour les animaux sur Artzamendi et d'aménager l'enclos de Mehatse pour faciliter le ramassage des bêtes en vue de les soigner sur site.


Nos paysages ont été dessinés par l'élevage

# Mendiko alhagiak eta naturaren ondarea

**Bizkarluzen azken hiru urtetan mekanikazko mendi garbitze lanak eginik izan dira alha guneak berritz baliatu ahal izateko neguko surik erabili gabe, eta han hemen utziz mekanikaz garbitu gabeko leku batzu hor bizi diren bitxo eta landare bereziek geriza bat ukan dezaten.**

Gisa hortan, Herriko Etxeak nahi izan du hurbildu berdeguneetaz arduratzen diren adituez, ekintza plan koherente eta iraunkor baten bermatzeko Atharriko mazelan, konduan hartuz laborantza hazkuntzari lotua dena, paisaiari edo ingurumenari bezala, baitaere su arriskuari.

Ingurumen eta bioaniztasun aldetik, Atharriko tontorra ote sasiez hesten ari, besteak beste aldatu delako hazkuntza moldea. Suteetarik zaintzeko asmoarekin, Atharrin eta Arrokagarain sue-ebakiak eginerazi dira telemandoarekin erabiltzen diren tresna batzuei. Suterik gerta baledi, su hiltzaileek balukete beren lanaren egiteko molde hobea.

Bururatzeko, Herriak abiatua du natura erreserba baten aintzin gogoeta CEN ingurumen erakundearen lagungoarekin. Itsasuko natura erreserba hunen eremua ez da oraino mugatua.

Erreserbaren helburua liteke zaintzea mendiko eremu batzuetan agertzen den ondare naturala eta hemengo beharrorduez kondu atxikiz : mendiko hazkuntza, araudi bereziak mendiaren erabilpen ezberdinak ongi orekatzeko (ibiltari, lasterkaldi, zakur lotua…). Erreserbaren onarpenak errextuko luke jendez eta diruz hobeki lagundua izatea lurraldearen zaintzeko, edo herritarrak ohartarazteko mendian jokatzen denaz.

Urte hondarra aintzin antolatua izanen da bilkura publiko bat herritarren, mendiaren erabiltzaileen eta laborari hazleen informatzeko erreserbari buruz.


Bioaniztasun handia dugu mendialdean

# Agropastoralisme et patrimoine naturel

**Une campagne de girobroyage sur Bizkarluze est menée depuis trois ans afin d'ouvrir ces zones au pâturage sans avoir recours à l'écobuage, tout en maintenant des îlots sans broyage pour servir d'abri à la faune et aux insectes présents sur le site.**

De plus, la commune a souhaité se rapprocher de structures spécialisées dans la gestion des espaces naturels afin de définir et partager un plan d'action cohérent et durable pour le site d'Atharri, tenant compte des enjeux agricoles, paysagers et environnementaux (biodiversité), ainsi que ceux liés à la sécurité (risque incendie).

D'un point de vue écologique, la colline d'Atharri suit un processus naturel de fermeture de milieu dû, en partie, à la régression des activités agro-pastorales. Afin d'anticiper d'éventuels incendies pouvant se déclarer sur Atharri et Arrokagarai, nous avons sollicité les services d'une entreprise spécialisée avec un girobroyage télécommandé pour réaliser des pare feux. Ces derniers permettront de faciliter l'approche des pompiers sur les sites.

Enfin, la commune a enclenché une démarche avec la collaboration du CEN pour envisager la création d'une réserve naturelle à Itxassou, le périmètre n'étant pas défini à ce jour.

Elle serait créée pour protéger ce patrimoine naturel remarquable grâce à une réglementation adaptée et en prenant en compte le contexte local : agropastoralisme, application des réglementations pour le multi-usage (randonneurs, courses, chiens en laisse...).

Elle permettrait d'obtenir des moyens humains et financiers spécifiques qui permettraient entre autre la surveillance du territoire ou la mobilisation citoyenne pour sensibiliser aux enjeux de protection.

Une réunion publique d'information sera organisée avant la fin de l'année pour informer les habitants, usagers et agriculteurs et définir ensemble les contours de cette réserve.

## 100 urte bete ditu Marie Urthiaguek une centenaire honorée à la mairie d'Itxassou

**Le CCAS et la Commune ont honoré d'une modeste réception le parcours de vie de Marie Urthiague, la nouvelle centenaire d'Itxassou.**

Marie Legagnoa était née un 11 avril 1923 sur la petite ferme Agorreta du quartier Izoki d'Itxassou, en bord de Nive et en limite de Bidarray et Louhossoa. Comme tous les enfants de ce quartier, elle a connu les bancs de l'école à Louhossoa, dont le bourg et le clocher plus proches permettaient surtout d'éviter les périlleuses traversées de la Nive.

Marie traversa le fleuve une bonne fois à l'automne 1950 pour devenir Marie Urthiague au bras du charpentier avec qui elle aura trois enfants. Elle n'aura jamais plus quitté Etxeparia à proximité de l'actuelle mairie, sinon pour aller travailler sur quelques établissements hôteliers du village et principalement sur le centre Marienia de Cambo.

« Santé et sérénité aussi longtemps que vous le souhaitez, avec la reconnaissance de tous les itsasuar, le souvenir des proches qui sont partis et l'affection de toute la famille qui vous entoure et vous aime » lui a-t-il été exprimé le 14 avril 2023 par les élus, avant de recevoir un bouquet de fleurs et de partager quelques gourmandises avec toute sa famille réunie dans la salle des mariages.




**Itsasuko GEUZ eta Herriko Etxeak ospakizun berezia eskaini diote Mari Urthiague andereari, bere ehun urte betetzearen kari.**

Izoki auzoko Agorreta etxaldean sortu zen Mari Legagnoa 1923ko apirilaren 11an, Errobi bazterrean beraz, Bidarrai eta Luhuso herrien mugetan. Izokiko haur guziak bezala, Luhuson ibili zen eskolan, hurbilago izanez hango eskola eta eliza, eta bereziki Errobiko uren zeharkatzeko zubirik ez baitzen.

Marik gainditu zituen aldebat errekako ur handiak 1950eko buruilaren 13an, ezkondu zelarik Itsasu Plazako Etxeparian, ezagutzen dugun Mari Urthiague deitzen zela ordutik Jean zurginaren aldean. Hiru seme alaba izan zituzten. Jean Pierre, Bernadette eta Gerardek ekarri dizkiote geroztik haurrak eta arrahaurrak.

« osasun eta goxotasun zuri nahi duzun bezain luzaz Mari, itsasuar guzien goresmenekin, galdu dituzun familiakoak gogoan, eta inguratzen eta maitatzen zaituen familia guzia bihotz altxagarri » diote opatu hautetsiek, ahamen bat jateko eta edateko bi tragoen artetik, Herriko Etxeko Kontseiluko gela nagusian.



**Réception de la famille Urthiague en mairie le 14/04/2023**

## Adinetakoen bakartasuna uxatzeko Plateforme « Ogénie » face à une situation d'isolement

Bizitzako urrats bakotxean inportanta delakotz lokarri zoziala, internet gune bakarrean kausitzen ahalko dituzue etxetik hurbil dauzkazuen adinetako jendei zuzendu iniziatiba guziak.

Hitzordu gunea www.ogenie.fr

Laguntza ere eskuratuko duzue bakarrik gertatzen zireztenean edo bakarrik senditzen zireztenean.

Parce que le lien social est important à chaque étape de la vie, retrouvez sur un seul site internet les initiatives destinées aux séniors à proximité de chez vous.

Rendez-vous sur www.ogenie.fr

Vous pourrez découvrir des ressources pour être conseillé.e lorsque vous faites face à une situation de solitude ou d'isolement.



# SOZIALA / **SOCIAL**

## Zine pizza gaualdiek gazteak bildu
## soirées ciné pizza qui ont motivé les jeunes



**Otsailaren 16an eta apirilaren 18an, bi pizza gaualdi izan dira, eguberriko eta udaberriko bakantzetan.**

Iluntzean heldu ziren gazteak Sanokirat, Marie eta Haizek hartu zituzten beren ardurapean. Moldatu zituzten bakotxak bere gostura beren pizzak eskainiak izan zaizkioten lehengaiekin, eta zine ekitaldia aintzin eta ondotik jostatu, mintzatu eta irri ederrik egin zuten ere.

Lehen saioa bururatu zen bi ekipa errabiatuen arteko musika blind test batekin. Apirilean aldiz, aroa hobea izanki, kanpoko jokoak proposatu dizkiete bi animatzaileek.

Eskerrak Krakadako Christelle eta Didieri, utzi baitute ogi labea pizza opilen erretzeko eta terraza ere gazteek erabili ahal izateko.


Moment de partage des pizzas



**Les 16 février et 18 avril, 2 soirées ciné/pizza se sont déroulées durant les vacances d'hiver et de printemps.**

Arrivés à Sanoki en fin d'après-midi, les jeunes ont été pris en charge par les animatrices, Marie et Haize. Ils ont composé leurs pizzas selon leur goût avec les ingrédients mis à disposition puis avant et après la séance ciné, ont joué, discuté, rigolé.

La première séance s'est terminée par un blind-test musical opposant 2 équipes très acharnées. En avril, la météo très agréable a plutôt orienté les animatrices à proposer des jeux sportifs en extérieur.

Merci à Christelle et Didier de Krakada d'avoir permis la cuisson des pizzas dans le four à pain et également pour la mise à disposition de la terrasse !

## Herri joko desafioa
## Défis autour des jeux traditionnels

**Primaderako bakantzetan Itsasuko nerabeak lehiatu dira lehengo indar eta trebezia jokoetan.**

Herriko plazan, Gaia elkarteak proposatu diete zernahi kirol ariketa, mobilizatzen zituztela zorroztasuna, trebezia, pazientzia, eta eraginkortasuna.

GEUZek eskaini krakada denboran, ekitaldia preziatu zuten gazteek jakinarazi dute berriz goza lezaketela esperientzia.


Gaia elkarteak animatu zuen plazako egitaldia

**Pendant les vacances de printemps, les ados d'Itxassou se sont confrontés aux jeux traditionnels de force et d'adresse.**

Sur le fronton du village, l'association GAIA a proposé diverses activités alliant dextérité, adresse, patience, efficacité et le plus important l'esprit d'équipe.

Lors du goûter offert par le CCAS, les jeunes très satisfaits ont exprimé leur souhait de revivre cette expérience.



## Adinetakoen erortzeko arriskuari buru egiteko
## Atelier « Bougez en toute sérénité »

GEUZ-aren bide kide bezala, présence verte elkarteak antolatu du dohainik hamabost bat itsasuarren aintzinean goizaldi bat adinetakoen erortzeko arriskuez informatzeko eta ohartarazteko. Aipatuak izan dira etxean nor berak egiten ahal dituen jestu arrunt eta merke batzu. Présence verte Elkarteak eskaini krakadaren itzulian segitu ahal izan dute solasek.

GEUZ-ak eskertu nahi du présence verte elkarteko ordezkaria, bainan ere Ilona Durand, Itsasuko kineziterapeuta, onartu baitu bere lan denboratik ematea gaiaren aipatzeko. Bere solasaldia biziki preziatua izan da, zehatza eta bizi bizia zelakotz.


Atelier animé par Présence verte à Sanoki le 11 mai


Ateliers après-midi jeux en famille

En tant que partenaire du CCAS, l'association Présence Verte a animé gratuitement devant une quinzaine d'Itsasuar une matinée d'information et de sensibilisation à la prévention des chutes dans la vie quotidienne et a apporté des recommandations de gestes simples et peu coûteux à mettre en place chez soi. Une collation offerte par Présence Verte a permis de poursuivre les échanges.

Le CCAS remercie chaleureusement l'intervenante de Présence Verte mais également Ilona Durand, kinésithérapeute d'Itxassou, qui a accepté d'accorder de son temps pour venir aborder le sujet. Son intervention concrète et dynamique a été très appréciée.



## « Sartu Jokoan ! Après-midi jeux en famille ! »

GEUZeko taldeak nahi izan du aratsalde hortan hobetu helduen eta haurren arteko lokarria antolatuz momentu gustagarri bat mahaineko jokoak baliatuz.

Arrakasta ukan du Jokorin-eko Corinnek animatu duen aratsaldeak : hamabost bat haur eta heldu jostatu dira elgarrekin ongi baliatuz estrategia, begia, gogoaren logika baitaere umore ona.

Itsasuko GEUZ-ek nahi luke berritu nerabeei zuzendu ekitaldi modu hori ondoko animazio proposamen batean.

L'équipe du CCAS a voulu lors de cette après-midi favoriser et renforcer les échanges entre les adultes et les enfants à travers un moment de partage ludique autour de jeux de société.

L'après-midi animée par Corinne (société Jokorin) a eu un réel succès : une quinzaine d'enfants accompagnés d'adultes ont pu jouer ensemble à des jeux de table mettant à l'épreuve la stratégie, l'acuité visuelle, l'esprit logique mais aussi la bonne humeur.
L'après-midi s'est clôturée autour d'un goûter agrémenté de pâtisseries maison préparées par Maialen.
L'équipe du CCAS souhaiterait réitérer l'expérience auprès des adolescents de notre village lors d'une prochaine animation.

# SOZIALA / **SOCIAL**

## Aisialdi jarduerak 12-15urte
## Activités de loisirs 12-15 ans

Uda honetako egitarauari (izen emaiteak abian):
**UZTAILAREN 11an, asteartez**, 14:00tik 18:00 arte: Kayak hastapena Errobin, Itsasuko Ur Tipula elkartearekin partaidetzan, gero kirol jokoak eta/edo lagunartekoak, kartak GEUZ-eko animatzailearekin.

**AGORRILAREN 18an, ortziralez**, 9:00tik 17:00 arte: Mondarraingo blokeetan eskalada Mendi Gaiakeko Patxiekin. Izen emaiteak herriko etxeko idazkaritzan hartzen dira. Ez dudarik egin!

Au programme cet été (inscriptions en cours) :
**MARDI 11 JUILLET de 14h à 18h** : Initiation kayak sur la Nive en partenariat avec l'association Ur Tipula d'Itxassou puis jeux sportifs et/ou de société, cartes, avec l'animatrice du CCAS.

**VENDREDI 18 AOUT de 9h à 17h** : Escalade sur les blocs du Mondarrain avec Patxi de Mendi Gaiak. Les inscriptions sont prises auprès du secrétariat de la mairie. N'hésitez pas !



## Hurbileko garraio solidarioak bere lehen urtea ufatu du
## Le transport solidaire de proximité a fêté sa première bougie

**Hurbileko garraio zerbitzu solidarioa, GEUZek proposatua, duela urtebete abian dela. Herriko 9 boluntariok herriko bideak zeharkatzen dituzte itsasuarrak etxera eramateko eta bilatzeko, batez beste 12 bidaia egiten dituzte hilean (1900 km urtean). Bidaiak segurtatuak dira Itsasu, Kanbo edo Ezpeletan.**

Interesatzen bazaizue, herriko etxeari jakinarazi. Izen emaite fitxa osatua izanen da (nortasun agiri bat eta erantzukizun zibileko asurantza agiri bat aurkeztu beharko dira).

Eta gero, tratua egina !

Herriko etxera dei ezazu zure joan-jinaren bezperan eta ibilgailu bat agertuko da zure etxera nahi duzun orenean.
Bi erabiltzaile ohien lekukotasunak :

*"oso pozik nago, boluntario guztiek eraman naute eta betidanik elkar ezagutu izan bagenu bezala hitz egiten dugu".*

*« izigarri kontent naiz, beharrik bada. Libro eta independentea sentitzen naiz. Ez dakit ze bolondres izanen den bainan igual zait (4 diferenteak ukan ditut).  Tenorean dira, izigarri untsa egina da ! »*


Bénévole venant vous chercher à la maison pour déplacements de proximité

**Le service de transport solidaire de proximité proposé par le CCAS est en place depuis maintenant un an. 9 bénévoles du village sillonnent les routes communales pour aller chercher et ramener les Itsasuar à leur domicile, à raison de 12 trajets mensuels en moyenne (1900 km parcourus en un an). Les déplacements sont assurés sur Itxassou, Cambo-les-Bains ou Espelette.**

Si vous êtes intéressé.e, faites-vous connaitre en mairie. Une fiche d'inscription sera complétée (une pièce d'identité et une attestation d'assurance responsabilité civile devront être déposées).

Et ensuite, le tour est joué !

Appelez la mairie la veille de votre déplacement et un véhicule se présentera chez vous à l'horaire souhaité.

Témoignages de deux utilisatrices régulières :

*« je suis très contente, j'ai été transportée par tous les bénévoles et nous discutons comme si nous nous connaissions depuis toujours ! » ;*

*« izigarri kontent naiz, beharrik bada. Libro eta independentea sentitzen naiz. Ez dakit ze bolondres izanen den bainan igual zait (4 diferenteak ukan ditut).  Tenorean dira, izigarri untsa egina da ! »*

## HEZKUNTZA / ÉDUCATION

# Ura izan da ikasturteko gaia

**Urte muga hurbiltzen ari da.**

**Aurten, ikasleek uraren inguruan lan egin dute!**

**Eskola publikoko ikasle guziek komiki proiektuan parte hartu dute: ama eskolako ikasleek argazki bilduma bat sortu dute eta CP -CM2ko ikasleek komiki bat Itsasuko artista baten laguntzarekin.**

Ama eskolako ikasleak Miarritzera joan dira egun pasa: Itsas museoa bisitatuz eta herriko itzulia trenez eginez. Egun biziki goxoa!

CP-CM2ko ikasleek 3 eguneko egonaldi batean parte hartu dute Zokoan. Han, hondartzaz eta itsasoaz baliatu dira hainbat aktibitateetan parte hartuz (arrantza, itsas bela, animaleen behaketa, balearen arrantza…).

Urtea ongi bukatzeko, ikasleek ikusgarri bat prestatu dute eta maiatzaren 12an gurasoen aitzinean presentatu dute.

Bestalde, guraso elkarteak (APE) ekainaren 10ean Atharrin jokoak eta animazioak antolatu ditu egun osoan.

Guraso elkartea eskertzen dugu. Horri esker gure ateraldi eta proiektuak antolatzen ahal ditugu.

Bakantza on deneri !!!





# Ecole publique : l'eau a été le thème de l'année

**La fin d'année est déjà là et les élèves de l'école publique ont mérité leur repos estival.**

**Tous les élèves ont ainsi participé à la création d'un roman photo (pour les maternelles) et d'une Bande Dessinée (pour les élémentaires) en collaboration avec un artiste d'Itxassou. Un exemplaire a été donné à chaque famille.**

La classe maternelle a passé une journée entière à Biarritz : le matin, ils ont visité l'aquarium et l'après-midi ils ont visité la ville de Biarritz en petit train. Une très bonne journée !

Les 2 classes élémentaires ont, quant à elles, participé à un séjour de 3 jours à Socoa. Sur place, ils ont pu profiter du lieu (face à l'océan) et participer à diverses activités autour de l'eau : pratique de la voile pour les plus grands / pêche à marée basse pour les moins grands, visite du port de pêche de Ciboure, ateliers divers sur la mer.

Pour clôturer l'année en beauté, les enfants ont réalisé un spectacle devant leurs parents lors de la fête de l'école le vendredi 12 mai.

L'Association de Parents d'Elèves a, quant à elle, organisé une kermesse le samedi 10 juin à Atharri avec divers jeux et animations.

Nous remercions encore les membres de l'APE pour les actions qu'ils ont menées tout au long de l'année afin de financer nos projets et sorties.

Bonnes vacances à tous !!!



Sorties à Socoa

# Arrokagarai ikastola gure ikastolako jostalekua aldatzen ari dela !



**Ikasturtean zehar, hainbat esperientzia bizi ondoan, ikastolako haurrek beren ametsetako jostalekua irudikatu dute.**

**Helburuak, jostatze molde gehiagoren sortzea, haurren arteko nahasketa bultzatzea eta espazio okupazioan berdintasun gehiagoren sortzea genituen.**

Hortarako, haur eta burasoen ideiak biltzen hasi ginen gutun kutxa batean. Ondotik, ideia guziak sailkatuz, haurrek maketa batzu eraiki zituzten kanpoko espazio berriak sortzeko.

Bilkura batean, haurrek burasoei 4 espazio berri aurkeztu zizkieten maketa hauen bidez.

Orain, burasoek, xinaurri langileak bezala, talde ttipitan antolatzen ari dira eta gure kanpoko eremua, haurrek irudikatu bezala bilakatzen ari dute.

Hor izanen ditugu : baratze eremu ederrago bat, motrizitate ibilbide bat, tinduz eginiko jokoak, kanika ibilbide bat, artista xoko bat, manipulazio xoko bat baita ere beste ideia zonbait… ikasleek heldu den ikasturtetik goiti gozatuko dituztenak.

Haur, buraso eta erakasleek elkarlanean, kanpoko eremu aberatsago bat izanen dugu, haurren irudimen eta elkarlanean, denen esku kolpetik jalgia !

# Notre cour de récréation change !

**Durant l'année scolaire, après avoir vécu diverses expériences, les enfants de l'école ont imaginé la cour de récréation de leurs rêves.**

**L'objectif était de créer plus de formes de jeu, d'encourager la mixité entre les enfants et de créer plus d'égalité dans l'occupation de l'espace.**

Pour cela, nous avons commencé à collecter les idées des enfants et des adultes dans une boîte aux lettres. Puis, triant toutes les idées, les enfants ont construit des maquettes pour créer de nouveaux espaces extérieurs.

Lors d'une réunion, les enfants ont présenté au travers leurs maquettes 4 nouveaux espaces.

Maintenant, les parents s'organisent en petits groupes pour créer ces nouveaux espaces imaginés par leurs enfants.

Grâce à leur aide, nous aurons un jardin plus riche, un parcours, des jeux peints au sol, un parcours de billes, un coin créatif, un coin manipulation ainsi que d'autres idées... dont les élèves profiteront dès la rentrée prochaine.

En travaillant avec les enfants, les parents et les enseignants, nous aurons un extérieur plus riche, grâce à la coopération entre tous !









# Itsasuko San Josep eskolak 60 urte



**Jadanik 60 urte gure San Josep ikastegiak haurrak laguntzen dituela beren ibilaldietan, ttipienendako murgiltzean eta handienendako elebitasunean, eta haien iratzartzea munduan.**
Beraz besta eguna zen Itsasun ekainaren 24an, larunbatez ! Eta partekatzen ez den alaitasunik ez denez, haurrek ikusgarri ederra eskaini dute herriko bihotzean!
Kultura, besta eta umore onaren zeinupean ezarria, belaunaldien arteko elgarretaratze alai baten okasionea izan da egun hau: Zaharrak, oraingoak edo gerokoak! Familia batzuk 3 belaunaldik ordezkatuak ziren, San Josep bankuak leundu zituztenak!
Besta kari, San Josep hezkuntza komunitate osoa elizara joan da, Jean-Paul Martinon erretoreak egin, Kanboko Izarrak eta haurren kantu alaiek bultzatu dituen graziazko ekintza meza baten karietara.
Otoitz denbora horren ondotik, komunitate guzia ikastetxera joan da, kolore nabarreko kabalkada eder baten aitzineko dantzak egiteko. Haurrek kantaldiak, antzerki eszenak, dantzak eta bertsoak nahasten dituzten antzezpen honen bidez, eskolako bizitza aberatsa berrartua izan da. Historia handia istorio bitxi eta anekdota traketsekin nahasten den tokian, aktoreen eta dantzarien benetako talenduak azaldu dira horrela.

Azkenean, besta zintzur-bustitze batek eta zikiro goxo batek lagundu dute berriz elkartze eta besta une eder hori luzatzen.
Esker beroenak une alai eta atsegin hau egin ahal izan duten guzieri : irribarre eta aurpegi distiratsuek bozkario partekatu hau erakusten zuten umeek, erakasleak, hain gaitasun baliotsuen partaide ezberdinak (Ihintza Irungaray eta Joana Erdozaintzi-Etchart dantzentzat eta Gillen Hiribarren bertsoentzat), hezitzaile taldea, hain ikasle leialen burasoak eta gure serora maiteak.

Paraleloki, aurten, berriz ere, beste proiektu eta aktibitateetan aberatsa izan da: eski egonaldia CM2entzat, goiz pedagogikoa Ezpeletako Biperminaren Tailerrean eta arratsaldea Zuraideko Ttiki Leku parkean ama-eskolakoentzat, eta azkenean Puy du Fou bidaia CPtik CM2rako haurrentzat.
Aupa San Josep !




## L'école Saint Joseph a fêté ses 60 ans

**Déjà 60 ans que notre Ecole San Josep accompagne les enfants dans leurs apprentissages, en immersion pour les plus petits et en bilinguisme pour les plus grands, et leur éveil au monde.**
C'était donc jour de célébration et de fête à Itxassou le samedi 24 juin ! Et comme il n'est pas de joie qui ne se partage, les enfants ont offert un beau spectacle au cœur du village !

Placée sous le signe de la culture, de la fête et de la bonne humeur cette journée a été l'occasion d'un brassage générationnel joyeux : Anciens, actuels ou futurs élèves ! Certaines familles étaient représentées par 3 générations ayant toutes poli les bancs de San Josep !
Pour cette occasion festive, toute la communauté éducative San Josep s'est d'abord retrouvée à l'église pour une messe d'action de grâce célébrée par Monsieur le curé Jean-Paul Martinon et animée par la Kanboko Izarra et les chants joyeux des enfants.
Après ce temps de prière, toute la communauté s'est rendue à l'école pour des danses qui étaient le prélude à une jolie cavalcade aux couleurs bigarrées qui a mené toute cette joyeuse troupe au mur à gauche Atharri pour des toberak. A travers cette représentation jouée par les enfants mêlant chants, scènes de théâtre, danses et bertso (verset) la riche vie de l'école a été retracée. Où la grande histoire se mêle aux histoires singulières et anecdotes truculentes, de vrais talents d'acteurs et de danseurs ont été ainsi révélés.

A l'issue, un apéritif festif et un zikiro gourmand ont permis de prolonger ce beau moment de retrouvailles et de fête.
Un grand merci à tous ceux qui ont permis de rendre cet instant joyeux et convivial : les enfants dont les sourires et visages radieux témoignaient de cette joie partagée, les enseignantes, les différents intervenants aux compétences si précieuses (Ihintza Irungaray et Joana Erdozaintzi-Etchart pour les danses et Gillen Hiribarren pour les bertsu), les parents d'élèves si dévoués et nos chères religieuses.

Parallèlement, cette année a encore une fois été riche en autres projets et en activités : un séjour au ski pour les CM2, une matinée pédagogique à l'Atelier du Piment d'Espelette et un après-midi de divertissement au parc Ttiki Leku de Souraïde pour les maternelles, et enfin le voyage tant attendu au Puy du Fou pour les enfants du CP au CM2.

Aupa San Josep !


Vente des cerises des producteurs d'Etxauri

# Gerezi bestak arrakasta ederra

**Ehunka bisitari izan ditu ekainaren 4ean gerezi bestak Atharri ezker paretaren itzulian.**

Itsasuko gerezi ekoizleen aldean hor ziren Etxauriko ekoizleak, hogoi kintal gerezi ekarriak zituztela Nafarroko ibar hartarik. Harrapaka eraman dituzte bisitariek salgai agertzen ziren Itsasuko eta Etxauriko gerezi guziak. Gerezi saltzapenaren ondoan azken urtetan bezala, egon da etxe eta elkarte ekoizpenen merkatua.

Atharri barnea 700 bazkaltiar baino gehiagoz bete da egun erditan. Goiz eta aratsaldeko animazioneek ere izan dute arrakasta ederra, iguzki sapa zelarik goizetik gauerat.

Itsasuarrak elkartearen gidaritzapean, Atharri baliatzen duten elkarte kideek eta herriko bolondres askok, 2023 urteko gerezi besta jendetsua bezain alaiaren itxura utzi dukete bisitari eta langileen gogoetan.

# Beau succès de la fête des cerises

**Des centaines de visiteurs ont assisté le 4 juin dernier à la fête des cerises au mur à gauche Atharri. Au côté des producteurs de cerises locaux étaient présents ceux du village d'Etxauri qui avaient emmené des cerises de leur vallée. C'est ainsi que tous les fruits proposés sur les étals ont été vendus.**

A leurs côtés, comme les années précédentes, le marché des produits locaux s'est également tenu.

A l'intérieur, le repas qui a réuni plus de 700 convives s'est poursuivi par des animations à l'extérieur en présence d'un large public sous un temps ensoleillé.

Sous la houlette de l'association Itsasuarrak, des membres d'associations partenaires locales ainsi qu'un grand nombre de bénévoles se sont investis au bon déroulement de la journée dans un esprit aussi joyeux que la fête des cerises 2023.



Repas gerezi besta


Ataitze dantza taldeko gazte batzu

## Gaztetxea Ataitzeko obrak

Lerro hauk agertuko direnean, baliteke Ataitze eta Gaztetxea geletako obrak bururatuak izanen diren.

Ataitze gelak berrialdi bat merezi zuen baldintza hobetan eskaini ahal izateko haurrei eta gazteei zuzendu urte luzeko dantza ikasgaiak.

Gaztetxea gelak oihartzun ainitz eta akuztika kaxkarra zituen aspaldian. Obrarik larrienak eginak dira beharrientzat jasan ezina zen gela bat musika eta kantuaren tenplo bihurtzeko.

Itsasuarrak elkarteak, Atharriko zelai horren jabe izanik, ditu obrak beregain hartu, elkargune eder horren hirurogoita hamar urteak ospatu aintzin 2023ko urrian.

## Travaux sur Gaztetxea eta Ataitze

Lorsque ces lignes paraitront, il est possible que les travaux d'Ataitze et Gaztetxea aient bien avancé.

Les locaux du groupe de danse Ataitze devaient être repris pour offrir de meilleures conditions matérielles aux cours de danse basque pour les enfants et les jeunes qui s'y déroulent tout au long de l'année.

La salle Gaztetxea souffrait surtout d'une très médiocre acoustique et l'essentiel des travaux de réfection portera sur l'amélioration phonique du local.

C'est l'association Itsasuarrak propriétaire des locaux d'Ataitze et de Gaztetxea d'Atharri qui a engagé ces travaux quelques mois avant le soixante dixième anniversaire du site qui porte le mur à gauche.

# MUGIALDI YOGA



**Mugialdi elkarteak Kundalini Yoga eskaintzen du Claire Seugnet anderea duelarik sustatzaile.**

**Bere ibilbideko dantza esperientzia ezberdinetarik ikasia, « 5 erritmotako dantzatik » hazia, badu gogoa dantza une berezi baten emaiteko, ondotik idekitzen ahal dela solasen askatasun gune bat, dantza bezain librea.**

**Bilan événement de la saison 2o22 / 2o23**

DENEK BAT !

L'association Mugialdi - en lien avec les enseignants du pays basque reliés à la fédération de tantra kundalini yoga - a innové ce 18 décembre 2o22 dernier, avec une journée de pratiques diverses, autour de l'enseignement de cette pratique.

Au programme, en libre participation sur la journée ou la ½ journée : Kundalini Yoga, Danse LIBRE ! méditations en mouvement ou silencieuse et chants sacrés. Une journée lumineuse de partages qui a réuni près d'une 30 ne de personnes dans un même élan de joie et de Cœur.

La proposition était faite à tou(te)s - pratiquant(e)s assidu(e)s ou débutants curieux d'Iparralde - d'un moment de découvertes, de rencontres et de partages, simple et chaleureux et la journée, auréolée d'une Lumière particulière a été un succès .

Alors, l'envie est là de renouveler l'expérience puisque tout n'est qu'expérience et que, selon Yogi Bahjan qui, dans les années 7o a transmis ce yoga depuis l'Inde où il se pratiquait entre initiés, pour l'offrir au plus grand nombre et **"aider la planète à vivre en paix dans une époque qui allait devenir de plus en plus chaotique"** ..

" le yoga est une science de la réalité et une preuve expérimentale du caractère sacré de toute vie ...

Une once de pratique vaut plus que 10 tonnes de théories "**Alors, RDV dimanche 1o décembre 2o23 ! à 9h3o** Pour ... PRATIQUER ! ONGI ETORRI DENERI !

Yoga kundalini : Reprise ! des cours hebdomadaires (1h15/3o) : Mardi 12 septembre à 9h30 - Espace privé / Jeudi 14 septembre à 18h45 Espace Sanoki - **Info / inscriptions Claire Seugnet 06 24 82 02 32**

# YOGA DEVA BIEN ÊTRE

Buruilaren 4ean hasiko berritz yoga

devabienêtre elkartea, Nepalen ikasia duen Catherine erakaslearekin

Energia, lasaitasuna, kontzientzia

Adin eta maila guzietako haur eta helduak

ikasgaiak astelehenez, asteazkenez, ostiralez Sanokin

entsegu ikasgaia dohainik

**Ongizatez**

Masajeak gatelu kantariarekin uztailaren lehenetik

arta bereziak oinaze fisikoentzat eta zainen lasaitzeko

Catherinek etxean hartzen ditu soinuaz artatua izan nahi dutenak

Etxedoiako bideko 60garrenean

**Contact : 07 67 12 29 37**
**www.devabienetre.fr**
**www.massageauxbolschantants.com**

**Yoga**

Nouveau cours de Yoga au 4 septembre

Association deva bien être, Catherine professeur de yoga formée au Népal

Énergie, Sérénité, Conscience

Tous les âges et tous les niveaux adultes et enfants

Cours le lundi, mercredi, vendredi à Sanoki

Cours d'essai offert.

**Bien être**

Massages aux bols chantants dès le 1er juillet

Traite les douleurs physiques et la tension nerveuse

Catherine, thérapeute en guérison par le son reçoit sur RDV chez elle

Où : atelier massages aux bols chantants
60 etxedoiako Bidea Itxassou



# ITSASUKO AEK

**Itsasuko AEK gau eskola elkarteak helduei euskara erakusten die. Maila guzietako ikasleak hartzen ditugu, hasi berriak edo maila zerbait dutenak.**

**Haurrak ikastolan edo elebidun sailean dituzten burasoei, kurtso bereziak proposatzen dizkiegu.**

Bestalde, alfabetatze edo hobekuntza kurtsoak badira ere bai, euskara idazten ikasi, gramatika landu edo EGA C1 prestatu nahi dutenei zuzenduak.
Bukatzeko, mintza praktika saio bat proposatzen dugu astean behin, hizkuntza ongi menperatzen dutenei irekia. Klase horietan, solasean aritzeaz gain, gramatika azalpenak ematen ahal dira.

Kurtsoak urritik ekainera egiten dira, hots urtean 32 astez, egunez edo gauez.

Xehetasun gehiago ukaiteko, irailean dei ezazue zenbaki honetara :
05 59 93 40 82 edo itsasu@aek.eus







**L'association Itsasuko AEK gau eskola donne des cours de basque aux adultes pour tous les niveaux (débutant ou confirmé).**

**Des cours spécifiques sont proposés aux parents dont les enfants sont scolarisé.e.s à l'ikastola ou au bilingue.**

Nous avons des cours d'alphabétisation également ou de perfectionnement ainsi que des cours pour préparer EGA C1.
Et enfin, une fois par semaine nous proposons un cours de discussion pour les élèves ayant un niveau confirmé.

Les cours ont lieu d'octobre à juin, soit 32 semaines dans l'année, en journée ou en soirée.

Pour plus de renseignements, appelez en septembre : 05 59 93 40 83 ou écrivez à itsasu@aek.eus.

# ARROKA

Arroka elkarteko 15 kideak, 18 eta 50 urte artekoak, lanean ari gira duela urte bat pasa, eskalada gelaren eraikitzeari buruz.

Gaur egun planoak finkatuak dira eta azken asteetan gelaren funtzionamenduari lotuak gira. Gure erronka izanen da eskalada gelaren biziaraztea, oreka bat atxikiz publiko desberdinen artean : eskolak, Itsasuarrak, elkarteko kideak eta nahi duen oro. Elkartearen eta eskaladaren ezagutza egiteko gomitatzen zaituztegu irailaren 16an ospatuko dugun lehen Arroka egunaren ediziora. Xehetasun gehiagorentzat edo taldean sartzeko ez duda gurekin harremanetan sartzea: info@arroka.eus




L'association Arroka, constituée d'une quinzaine de membres entre 18 et 50 ans, travaille depuis plus d'un an à la création de la salle d'escalade.

Aujourd'hui les plans sont terminés, et nous réfléchissons au fonctionnement de la structure. Notre objectif est de faire vivre cette salle en veillant à respecter un équilibre entre les différents publics : scolaires, Itsasuar, membres de l'association et grimpeurs ou curieux en tout genre. Pour faire notre connaissance ou découvrir l'escalade nous vous invitons à la 1ère édition d'Arroka eguna qui se déroulera le 16/09 au fronton.

# MENDITARRAK




## Les fêtes du village, grand rendez vous de l'été

Les fêtes d'Itxassou auront lieu comme d'habitude dans la deuxième quinzaine du mois d'août 2023. Du vendredi soir 18 août jusqu'au jeudi matin 24 août les places et les rues du village connaitront l'effervescence habituelle.

Le comité des fêtes Menditarrak a décidé cette année encore d'organiser le rendez vous du samedi soir à Atharri. Le site est privé puisqu'il appartient à l'association Itsasuarrak. Il a cependant l'avantage d'être plus facile à sécuriser selon les organisateurs pour des soirées qui réunissent beaucoup de jeunes.

Ce sont les jeunes générations d'itsasuar qui se relaient à l'organisation des fêtes pour le plus grand bonheur de tout le village et qui parviennent à offrir un programme de qualité, avec la participation de nombreuses autres associations locales.

Ils méritent le meilleur accueil lors du passage dans tous les quartiers de la commune pour remettre le programme à chacun, vendre les billets de tombola.

La contribution volontaire que chaque habitant leur glisse dans la caisse, est très appréciée, surtout quand elle arrive alors que les glaçons sont en train de fondre au fond du breuvage partagé.

## Plazak eta karrikak pil pilean herriko bestentzat

Beste urtez bezala Itsasuko bestak agorrileko bigarren hamabostaldian izanen dira aurten ere. Agorrilaren 18 ostiraletik agorrileko 24 ostegun goizalderat, pil pilean egonen dira herriko plaza eta karrikak.

Aurtengoan ere, Menditarrak besta komiteak deliberatu du Atharrin antolatzea besta larunbateko gaualdia. Atharri gune pribatua da elkarte baten esku baita. Egokiago haatik gazte jende ainitz biltzen denean, bereziki sekuritatearen bermatzeko.

Herri guziaren gozamenerako, itsasuar gazteak dira besta antolatzaile belaunaldiz belaunaldi. Erreferentzia bihurtuak dira Itsasuko bestak inguruko herri gehienen artean, kalitatezko programa eskaintzen dutelako eta herriko hainbat elkarteen laguntza eskuratzen dutelako.

Gure gaztek ongi etorririk beroena merezi dute Itsasuko etxe eta auzoetan ibiltzen direlarik programaren zabaltzen, zozketako txartelak saltzen eta gomita zuzenaren eskaintzen. Itsasuar bakotxak egiten duen diru emaitza preziatzen dute, eta are gehiago tragoxka baten eta bi solasen erdian heldu bada.

**VENDREDI 18 AOÛT**
Concert à Atharri

**SAMEDI 19 AOÛT**

9ème édition du BALL-TRAP organisée par l'ACCA

18ème édition de Latseko Itzulia

Remise des prix de la course à l'agorescape avec talo/frites par l'IKASTOLA

Finales du tournoi de foot à l'agorespace

Ouverture officielle des fêtes à l'issue, apéritif « Chez Boroï » avec initiation à la danse par l'association Itsas'Rock

Concerts à Atharri avec Itziarren Semeak, Sutagar et Trikidantz

**DIMANCHE 20 AOÛT**

Messe solennelle suivie de l'apéritif au Restaurant du chêne avec des mutxikos et les txistulari

Repas des preso

Marilou eta Eneko kantuz, spectacle de danse TIO TERONEN SEMEAK

Soirée talo animée par HONKY TONKI puis concerts avec FRIGO et GOZATEGI

After GOXOKI

**LUNDI 22 AOÛT**

Fête du quartier du Laxia

Tournoi de mus à Indianoenea

Tournoi de pelote à main nue, ouvert à tous au fronton du Laxia

Finales du tournoi de pelote et apéritif animé par Itsasun Kantuz à Indianoenia

Spectacle de danse avec le groupe Hastapenetik

Repas dans les restaurants du Laxia

Retraite aux flambeaux avec les Joaldunak d'Hasparren

Feu d'artifice à l'issue, soirée animée par Sheep and beer

**MARDI 22 AOÛT**

Lever de rideau avec les meilleurs espoirs d'Itsasuarrak

Partie de pelote des indépendants

Animation par les Gaitero

Spectacle avec le groupe ATAITZE et les makilari d'Itxassou

Soirée animé par RAKATAPUNK et une Txaranga

After GOXOKI

**MERCREDI 23 AOÛT**

Fête du quartier de l'église

12h Apéritif à Elizaldia

Apéritif et méchoui animé par Atzarbale – Concours d'irrintzina et diverses surprises….

Bal de clôture avec TRIKIZIO

# ERROBIKO FESTIBALA

## "ORKESTRA OSA"
## "FAIRE ORCHESTRE"

Osa dadila orkestra. Hotsak batera ditezela.

Hots eta abots ezberdinak akordatuko dira beste behin, Errobiko Festibalaren sintonian.

Haitzak eta zuhaitzak aipatzen dizkigu Julen Axearik.

Erroak lekuan lekuko lurrean zabal eta barna lotuak dituen haitzondoak altua bezain hedatua du hostotza. Bakarrik egotea baizik ez du beste beldurrik. Atseginez onartzen ditu aldean pagoak eta lizarrak eta gaztainondoak. Hotseginez onartuko ditu koko zuhaitzak ala palmatzeak edo baobabak.

Zuhaitzen hostotzek eta zuhaitzen sustraiek ez dute mugarik, aldean zutik dauden zuhaitzen itzalaz besterik. Aldean dituzten zuhaitzen sustraiak kilikatzen dituzte lur sakonean. Aldean dituzten zuhaitzen hostoak perekatzen dituzte haize denean.

Munduko sustrai, hostotza, abots eta hots ezberdinak kilikari, perekari, musikari, dantzari eta kantari, Itsasuko Atharrin.

**Errobiko Festibala est un lieu-moment durant lequel nous expérimentons, depuis de nombreuses années, la Créolisation portée par des créateurs enracinés. Une rencontre de personnes-mondes, avec un public devenant à son tour acteur d'une expérience vécue.**

Pourrions-nous comparer ces êtres, nos êtres, à des arbres, à une forêt aux racines profondes, permettant une extension des branches sans peur de la disparition ?

Les arbres ne connaissent pas de frontière, et leurs territoires ne sont pas définis à la règle, au contraire des nations ou des colonies qui hélas existaient naguère, et peut-être encore.

Que se passerait-il si nos corps, nos êtres même… enfin, nos territoires, n'étaient pas fermés aux frontières, mais permettaient l'accueil de l'autre, jusqu'à s'accorder en un point pour entrer en résonance ?

Comme disait Édouard Glissant, nous pouvons « changer en échangeant avec l'autre, sans se perdre pour autant ».....





Yellel


Poil Ueda

## BILLETTERIE

| | TARIF NORMAL (sur place) | TARIF REDUIT (vente en ligne, minima sociaux, étudiants, - de 16 ans) |
|---|---|---|
| PASS 3 JOURS | 55 € | 50 € |
| PASS JOURNÉE (jeudi) | 22 € | 20 € |
| PASS JOURNÉE (vendredi / samedi) | 28 € | 25 € |
| BILLET SOIRÉE (uniquement sur place) | 22 € | 20 € |
| CONCERT 15.07 | libre à partir de 8 € (+ 2€ ahésion Zùzùlù) | |

gratuit pour les moins de 12 ans


Aztarnak

www.errobikofestibala.net

**billetterie :** https://errobikofestibala.net/billetterie

# ITSAS'ROCK

Dantza ezberdinen erakustaldia Itsasuko pesten kari agorrilaren 19an.

Aurten ere, dantza gaualdi bat Halloweenentzat (data baieztatzekoa).

Urte hastapenean jadanik iraganak diren ekitaldiei buruz, antolatu ditugu:
- "krepak eta dantza" arratsalde bat martxoaren 5ean,
- Gure urte bukaerako festa joan den ekainaren 10ean.

Gure agerpen guziek arrakasta eta parte hartze handia ukan dute, bai gure partaideen aldetik, bai ondotik datorkigun publikoaren aldetik.

Démonstration des différentes danses à l'occasion des fêtes d'Itxassou le 19 août.

Cette année encore, une soirée dansante pour Halloween (date à confirmer).

Concernant les évènements déjà passés depuis ce début d'année, nous avons organisé :

- un après-midi "crêpes et danse" le 5 mars,

- notre fête de fin d'année le 10 juin dernier.

Toutes nos manifestations ont rencontré un franc succès et une forte participation de nos adhérents ainsi que du public qui nous suit.

Internet: www.itsasrock.fr
Facebook : www.facebook.com/Itsasrock
Contact bureau: 07 83 67 24 88

# Haurren elkartasun eguna




**Itsasuko herritar batzuek sortu berri dute Jokolagun elkarte berria. Elkarte hunek nahi luke urtean behin antolatu egun bat haurren jokoaren inguruan.**

Asmoa liteke egun hortan bildu dirua baliatzea nekezian diren haur batzuen laguntzeko.

Elkartasun egitasmo bat da haur batzuen ganik beste haur batzuei buruz.

Lehen ekitaldi bezala Jokolagunek proposatzen du kirola egonaldi bat **Atharrin 2023 uztailaren 29an**, animazione bikoitzarekin :

- Pala lehiaketa bat birazkako ekipekin (8- 10 urtetako haur bat eta heldu bat)

- Zaldizkako animazioneak (ibilaldi ala artatze) 4 urtez gehiagoko haurrentzat eta helduentzat

Bakotxak bere bazkaria ekarriko du eguerdiko eta lekuan berean edaritegi bat antolatua izanen da. Egunaldi guzian haurrak burrasoen ardurapean egonen dira.

Aurtengo ekitaldiaren emaitzak Sénégal herrialdeko M'Bour herriko Toutcouleur eskolari joanen dira.

Izen emaiteak hartzen dira 2023ko uztailaren 20 arte (Valérie (pala lehiaketa 06 82 71 13 64 / Maider (zaldi animazioneak) 06 43 02 43 99

# Une journée de solidarité des enfants

**A l'initiative de plusieurs habitants d'Itxassou, l'association JokoLagun vient d'être créée. Cette association propose d'organiser chaque année une journée autour du jeu pour les enfants au sein du village.**

L'idée est que les fonds récoltés lors de cette journée soient adressés en solidarité pour différentes causes concernant d'autres enfants. Il s'agit d'un projet de solidarité et d'entraide par des enfants pour d'autres enfants.

A l'occasion de cette première édition, l'association propose d'organiser une journée sportive le **samedi 29 juillet 2023** au mur à gauche Atharri, avec une double-animation :

- un tournoi de pala sur la journée, par équipe (un enfant de 8 à 10 ans accompagné d'un adulte) ;
- des animations équestres (balades à poney, soins) pour les enfants à partir de 4 ans ainsi que pour les adultes.

Chacun amènera son pique-nique et une buvette sera organisée sur place. Durant la journée, les enfants resteront sous la responsabilité des adultes.

Cette année les bénéfices de la journée seront reversés à l'école Toutcouleur située dans la commune de M'Bour au Sénégal.

Les inscriptions sont prises jusqu'au 20 juillet 2023 en contactant : Valérie (pour le tournoi de pala) au 06 82 71 13 64; Maider (pour les animations équestres) au 06 43 02 43 99.

# Uzta ederra aurtengo neguan pilotarentzat
# Bonne moisson d'hiver pour nos couleurs



**Cet hiver, ce sont 15 équipes qui ont défendu les couleurs du Club dans les diverses compétitions de main nue trinquet.**

En ce qui concerne les résultats les plus marquants on peut noter le bon parcours de l'équipe minime Unai Pagueguy et Thomas Sahasquet qui s'incline en demi-finale des championnats du Pays basque et de France.

En finale Union basque, deux équipes du club étaient opposées : ce sont Fabien Mendiboure et Antton Moustirats qui se sont imposés contre les Sanzberro père et fils.

En tête à tête, Estebe Parachu, encore junior, remporte le titre de champion du Pays basque 3ème série.

Les débutants de l'école de pelote ont terminé leur saison en participant au tournoi « Errobiko topaketa », ce qui leur a permis de se croiser avec les joueurs d'Atzarri Souraïde, Napurrak Espelette, Inthalatz Larressore et Kanboarrak de Cambo. Une belle occasion de se confronter pour tous nos jeunes pilotari.

Le traditionnel tournoi « Atharri » a vu la victoire de Bixente Bideondo et Battitta Ducassou contre Mathieu Ospital et Inaki Etchegoin devant la foule des grands jours.

Encore un hiver bien plein pour nos couleurs.

La saison prochaine s'annonce compliquée du fait des travaux programmés à Balaki. Cela induira forcément des soucis d'organisation et d'intendance en attendant la rénovation tant attendue de notre Trinquet. AUPA ITSASUKO PILOTA !

**Aurtengo neguan, 15 taldek defendatu dituzte klubaren koloreak trinketeko esku huskako lehiaketetan.**

Emaitzarik aipagarrienei dagokienez, aipagarria da Unai Pagueguy eta Thomas Sahasquet gaztetxoen ibilbide ona.

Euskal Batasuna finalean, klubeko bi talde ziren aurrez aurre : Fabien Mendiboure eta Antton Moustirats nagusitu ziren Roger eta Florian Sanzberro aita-semeri.

Buruz buru, Estebe Parachuk, Euskal Herriko txapeldun titulua irabazi du, 3-garren seriean, junior mailan.

Pilota eskolako hasiberriek "Errobiko topaketa" txapelketan parte hartuz bukatu dute denboraldia, eta horri esker, Atzarri Souraïde, Napurrak Espelette, Inthalatz Larressore eta Kanboko Kanboarrak taldeetako jokalariekin gurutzatu dira. Aukera ederra gure pilotari gazte guziekin jokatzeko.

"Atharri" txapelketa tradizionalak Bixente Bideondo eta Battitta Ducassouren garaipena ikusi du Mathieu Ospital eta Inaki Etchegoinen aurka.

Beste negu bete-betea gure koloreentzat.

Datorren denboraldia zaila izango da Balakin programatutako lanengatik. Horrek, ezinbestez, antolaketa kezkak sorraraziko ditu, gure Trinketea berritu arte.

AUPA ITSASUKO PILOTA !



Carole Ibar et Marion Broussaingaray pour Itsasuarrak

## Neskak

Garaipen bikoitza Euskal Herriko txapelketako finalean eta Frantziako txapelketan trinketeko gomazko pilotan : 19 urtez gazteagoko kategorian, Marion Broussaingaray eta Carole Ibar

Garaipena Euskal Herriko Txapelketan gomazko pilotan: 16 urtez gazteagokoen kategorian, Maia Darguy eta Maitane Daguerre



Maitane Daguerre et Maia Darguy pour Itsasuarrak

## Les féminines

Double victoire en finale du championnat Pays Basque et championnat de France en catégorie - de 19 ans pour l'équipe Itsasuarrak en « pala pleine Trinquet » : Marion Broussaingaray et Carole Ibar.

Victoire en championnat Pays Basque - de 16 ans pour l'équipe Itsasuarrak « pala pleine trinquet » : Darguy Maia et Daguerre Maitane.




# Idekiakoak Bretanian barna ikuska

Zutik, bere « show-a » egiten ari den itsasoaren parrean, Pointe du Raz-en ; Locronan-go herrixka eta bere granitozko XVIgarren mendeko etxeak, zoritxarrez Philippe Broca eta Claude Chabrol zinegileak ez baitziren hitzartuak gure filmatzen aritzeko ; ondasareekin bildu arrainez blai itsasontzien kalabazak, gure begien aintzinean porturatuak, Guilvinec-en eta Criée-n, han agertzen baita arbelan erosi arrainaren prezioa kilorako.

Gauza guti senditzen gira Carnac-eko 3000 iruinharri lerrokatuen aldean. Quimper-eko Corentin katedralean sakratuaren misterioak hartzen gaitu, Vannes-ekoak bezala, han kondatu baitaukute Bixente Ferrier sainduaren ixtorioa, eliza horren aldarepean ehortzirik izan baita.

Jules Vernes ontziak eramaiten gaitu Morbihan-go Golkoan, marearen inarrosaldiek ez gaituztela uzkailtzen, eta heltzen gaituela Ile aux Moines ugarteraino, karrika loreztatuetan oinez ibiltzeko… Kouign-Amannaren arrakastak badu izateko arrazoinik ederki gozatzen dugunean bere gurin eta azukre gehixegiarekin… gabota dantzatzeko mitxa emaiten zaukula… bigouden andere ttuttuladunek gidaturik.. ez dugu sekulan aski eskertuko Michel gure artzaina, Christophe gure autobus gidaria eta Cyrille gida poeta.

**Quelques temps (très) forts, pour les 52 voyageurs, partis d'Itxassou, le 02 mai 2023, pour 5/6 jours, en Bretagne.**

Debout, face à l'océan qui nous fait son « show », à la Pointe du Raz ; le village de Locronan et ses maisons de granit du XVIème siècle où, malheureusement les cinéastes Philippe de Broca ou Claude Chabrol n'étaient pas au RDV, pour nous filmer ; les cales grouillantes de poissons péchés au chalut, débarqués sous nos yeux, au port de Guilvinec et la Criée, où s'affiche sur le tableau le prix au Kg du poisson acheté.

Nous nous sentons bien petits devant le mystère des alignements des 3000 menhirs à Carnac. Le sens du Sacré nous saisit dans la cathédrale St Corentin à Quimper et celle de Vannes où nous est conté l'histoire de St Vincent Ferrier, enterré dans son chœur.

Le « Jules Vernes » nous amène sur le Golfe du Morbihan où les remous de la marée ne nous font pas chavirer, il nous dépose à l'Ile aux Moines pour déambuler dans ses ruelles fleuries...La réputation du Kouign-Amann n'est pas volée que l'on apprécie malgré sa « bonne » quantité de beurre et de sucre… Et nous a donné l'énergie nécessaire pour danser la gavotte…, menée par les bigouden aux hautes coiffes de dentelles...on ne remerciera jamais assez notre berger Michel, notre chauffeur (St) Christophe et notre guide (poète) Cyrille.

Hileroko martxek gero eta arrakasta gehiago dute

- Aktibitate batzuk geldian ezarriak izanen dira udako hilabeteetan

- **Uztailak 20a osteguna** : Berandotzeko gainetako askari ateraldiak.

- **Agorrilaren 10a osteguna** : Bisita gidatua Meatzetik Bankara, eta ondotik afari bat Esnazun.

- **Irailak 28a osteguna** : zikiro Atharrin

Gure asteroko jarduera guztiak udazken honetan hasiko dira berriro...
Informazio eta atxikimendu guziendako, deitu 06 72 39 74 61 edo 06 79 48 11 68 zenbakira. Helbide elektronikoa: michel.iturburua@orange.fr

Les marches mensuelles ont de plus en plus de succès…

- Certaines activités seront mises en veilleuse durant les mois d'été…

- **Jeudi 20 Juillet** : Sortie-goûter sur les hauteurs de Berandotz.

- **Jeudi 10 Août** : Visite guidée du sentier de la Mine à Banca, suivi d'un dîner à Esnazu.

- **Jeudi 28 Septembre** : Méchoui à Atharri

Toutes nos activités hebdomadaires reprendront cet automne...

Pour tous renseignements et adhésions, s'adresser au 06 72 39 74 61 ou 06 79 48 11 68. Mail : michel.iturburua@orange.fr

# DONG XI EST OUEST



**2004tik, Dong Xi Est Ouest elkarteak arte martzialak eta txinatar gimnasia ikastaroak eskaintzen ditu. Publikoari idekia (gure bazkideak 6 eta 76 urte tartean dira), Biarritz Sport Santé-rekin eta Centre Hospitalier de la Côte Basque -rekin errezetapean dauden kirolak ere barne hartzen ditu.**

**Depuis 2004, l'association Dong Xi Est Ouest propose des cours d'arts martiaux et de gymnastique chinoise. Ouverte à tous publics (nos adhérents ont de 6 à 76 ans), elle intègre aussi le sport sur ordonnance avec Biarritz Sport Santé et le Centre Hospitalier de la Côte Basque.**

**Jarduerak**
Txinako Arte Energetikoaren eta Martzialen Frantziako Federazioan (FFAEMC) lotuak dira, elkarteak diziplina hauek eskaintzen ditu: **Kung Fu** (arte martzial tradizionala), **Taichi Chuan** (yin-yang arte martziala eta osasun artea), **Qi Gong** (arnasa eta energia lana), **Sanda** (borroka kirola) eta **Bagua Zhang** (espiraletan oinarritutako arte martziala)... Gainera, ikasleentzako dantza garaikideko eskolak (4 urtetik aurrera), **"zazen" meditazioa** eta landare-erreflexologia tailerrak. **Datorren udazkenetik** aurrera, **Taichi Chuan** eta **Qi Gong** ikastaro berriak eskainiko ditugu Itsasun. Datak oso laster jakinaraziak izango dira.

**Klaseen sartzea**
Urteko klaseak **irailaren 11ko** astean berriz hasiko dira. Kontaktua : Franck Noden, gure irakaslea telefonoan: 07 83 68 70 69 dong.xi@orange.fr Edo bisitatu gure webgunea: https://dongxiestouest.wixsite.com/website/
Ondo pasa oporrak eta laster arte!

**Les activités**
Affiliée à la *Fédération Française des Arts Energétiques et Martiaux Chinois (FFAEMC)*, l'association propose les disciplines suivantes : **Kung Fu** (art martial traditionnel), **Taichi Chuan** (art martial du yin-yang et art de santé), **Qi Gong** (travail du souffle et de l'énergétique), **Sanda** (combat sportif) et **Bagua Zhang** (art martial fondé sur les spirales)… Mais aussi des cours de **danse contemporaine** pour des élèves (dès 4 ans), de la **méditation Zazen**, des ateliers de réflexologie plantaire.
A partir de **l'automne prochain**, nous vous proposerons de nouveaux stages de **Taichi Chuan** et de **Qi Gong** à Itxassou.
Les dates vous seront communiquées très prochainement.

**Reprise des cours**
La reprise des cours annuels se fera **la semaine du 11 septembre**.
Contact : Franck Noden, notre professeur au : 07 83 68 70 69
dong.xi@orange.fr Ou consulter notre site : https://dongxiestouest.wixsite.com/website/
Passez de bonnes vacances et à bientôt !

# INDIANOENEA

## Udaberria indianoenean

Negua goxoki iragan ondotik, Indianoenea elkarteak pala txapelketa antolatu zuen Laxiako plazan. Martxo undarrean hasi ziren partidak eta ekainaren 10ean bururatu, finaleekin. 28 talde, 3 serietan banatuak ziren eta pilota klaska eta pala zarten oihartzunez animatu da atekagaitza .



Ekainaren 10ean, hiru finalak sutsutean iragan ziren, eta zikiroa ogian eskaini zieten gose ziren jokalari eta ikusle guzier!

Itsasuko bestenkari, astelehenean, 2023/08/21, Indianoenea elkarteak pesta komiteak antolatzen duen Mus txapelketa errezebituko du.
Esku hutsezko pilota txapelketa ere antolatuko du

Eta kirolak eta kulturak gosea iratzartzen dutenez : jateko eta freskatzekoak izanen dira egun guzian.

## L'arrivée du printemps à Indianoenea

Après quelques mois d'hiver au calme, l'association Indianoenea a organisé son tournoi de pala sur la place du Laxia. Les parties ont débuté fin mars et se sont achevées le 10 juin, jour des finales.
Se sont affrontées à grands coups de pala et de balles pelées 28 équipes réparties en 3 séries.

Le 10 juin, après trois finales enflammées, un zikiro dans le pain a été proposé à tous les joueurs et spectateurs affamés !
Une belle journée sportive et culinaire !

Le lundi des fêtes d'Itsasu, 21/08/2023, l'association Indianoenea accueillera au Laxia le tournoi de Mus organisé par le comité. Elle organise aussi un tournoi de main nue.

Et comme le sport et la culture donnent faim : restauration et buvette sur place toute la journée.

# FEMIN'HITZA

## Besta bai erasorik ez




**Martxoaren 8an, emazteen dretxoen aldeko nazioarteko eguna eta Itsasuko besten prestaketa.**

Martxoaren 8an, Femin'hitza elkarteak Kanboko zineman « Annie colère » filma pasarazi zuen, gelaren kudeatzaileen laguntzarekin. 2022an sortu film hori abortuaz ari zen 1974. urtean. Ondotik, eztabaida bat antolatua izan zen, Familia Plangintzak eramanik.
Gaualdi kausitua : gela betea, filma ederra eta 2023an oraindik aipatzekoa eta argitzekoa den gaia aipatu zen.

Itsasuko besten karietara, besta komitearen eta herriko etxearen partaidetzarekin, herriko ostatuetan erasoen kontrako protokoloak banatuak izanen dira, gune publikoetan sensibilizazio afitxak ezarriak eta larunbat gauean, kontzertuaren sartzean Atharrin, prebentzio mahai bat proposatua izanen da.
Bestetako asteartean, herriko plazan, 19:00etan aperitifa momentuan, elkarteak « dute baten hartzera » gomitatzen zaituzte, Familia Plangintzak zerbitzaturik.



Feminitzako kideak erakus mahainean

## Sensibilisation et prévention

**Femin'hitza : 8 Mars : journée internationale des droits des femmes et préparation des fêtes d'Itsasu**

L'association Femin'hitza a organisé le 8 mars 2023 en partenariat avec et au cinéma l'Aiglon de Kanbo, la projection du film Annie Colère, film sorti fin 2022 et traitant du thème de l'avortement en 1974.
S'en est suivi un débat animé par des membres du planning familial de Bayonne.
Une soirée réussie : une salle comble, un magnifique film et un sujet qu'il fait toujours bon aborder et éclaircir en 2023 !

Pour les fêtes d'Itsasu, en partenariat avec le comité et la mairie, des protocoles seront distribués dans les bars, des affiches de sensibilisation accrochées dans les lieux publics et une table sera tenue samedi soir à Atharri.

Le mardi des fêtes, 22/08, au moment de l'apéritif sur la place du village à 19h, l'association vous proposera « une tasse de thé » et tout cela servi par le planning familial de Bayonne.

# Karate

Pour la rentrée 2023 nous organiserons des "portes ouvertes" les **9 et 16 septembre** pour faire découvrir aux éventuels intéressés ou curieux le Daruma Taïso (gymnastique chinoise dès 15 ans) à 9h et le Karaté Goju-Ryu (enfants et adultes) à 10h30 à l'étage de la salle Sanoki.

(contact: Mélanie 06.73.22.50.17)

2023rako "ate irekiak" antolatuko ditugu **irailaren 9 eta 16an**, interesatuak edo jakin-minean izan daitezkeenei Daruma Taiso (15 urtetik aurrerako gimnastika txinatarra) 9:00etan eta Karate Goju-Ryu (haurrak eta helduak) 10:30ean ezagutarazteko Sanoki gelan.

(kontaktua: Melanie 06.73.22.50.17)

# UR TIPULA
# Compétitions et nettoyage des berges

# Lehiaketak eta erreka garbitzeak

**Deux jeunes compétiteurs d'Ur Tipula qualifiés pour les championnats d'Europe et du monde de Kayak.**

Après une année 2022 très riche sportivement avec un titre de champion de France U15 pour Unai Oteiza, une place de trois pour Edgar Paleau Brasseur et une sélection en équipe de France pour Nahia Oteiza, l'année 2023 s'annonce toute aussi prometteuse.

Elorri Erdois et Edgar Paleau-Brasseur purs produits Ur Tipula vont se retrouver sous deux drapeaux différents pour les championnats d'Europe à Bratislava en Slovaquie, du 20 au 23 juillet et les championnats du monde à Cracovie en Pologne, du 16 au 20 aout. Nous sommes certains qu'ils porteront haut les couleurs d'Itsasu et d'Urtipula.

Il ne faut pas oublier également les autres compétiteurs sélectionnés pour les championnats de France cet été Anton Erdois en canoë U23, et Unai Oteiza en kayak U18.

Les 18 et 19 février 2023 avait lieu un Rassemblement & Course de kayak sur le site du "Pas de Roland". La première édition de la NIK (Nive Itsasu Kayak) a rassemblé le samedi 70 compétiteurs issus des deux côtés de la frontière. La compétition a été remportée par notre mascotte locale Edgar. Après une soirée festive nous nous sommes retrouvés le dimanche pour une descente conviviale sur la Nive. Nous en profitons pour remercier nos partenaires Omei Kayaks, Passion Nature le spécialiste du canoë-kayak, la Fromagerie Onetik et le Parc Aquasports - Stade d'eaux vives Pau-Pyrénées.

Le Dimanche 11 juin un nettoyage des berges de la Nive à Itxassou était organisé avec Ur Tipula, Évasion 64, URA H2O, URAMAP. Nous étions une cinquantaine mobilisés pour ramasser les déchets accrochés aux berges, une benne mise à disposition par la mairie a été remplie. Merci à tous ! N'oublions pas que pour stopper l'hémorragie, il faut agir à la source des pollutions. www.uramap.net est là pour cela : fédérer un maximum de personnes contre les pollutions et leur permettre d'agir collectivement.

Avec le CCAS de la mairie nous proposons cet été une initiation au kayak aux jeunes Itsasuars.

L'activité du club reprendra en septembre le samedi après-midi pour tous et le mercredi après-midi pour l'école de pagaie.


Elorri Erdois


Edgar Paleau-Brasseur

Elorri Erdois eta Edgar Paleau Brasseur Ur Tipulako seme alaba zuzenak gertatuko dira biak bandera ezberdinen itzalean Slovakiako Bratislavan Europako txapelketen kari 2023ko uztailaren 10tik 23 rat, eta Poloniako Krakovian lehiatuko diren mundu mailako txapelketan 2023ko uztailaren 16tik 20 rat. Dudarik ez dugu gora eramanen dituztela biek Itsasuko eta Urtipulako banderak.

Ahantzi gabe aipatu behar dira beste lehiatzaileak eta bereziki Anton Erdois eta Unai Erdois.

2023ko otsailaren 18 eta 19an antolatuak ziren Ataitzeko Errobian kaiak elkarretaratze eta lehiaketa bat. NIK (Nive Itsasu Kayak) ekitaldiak bildu ditu 70 lehiatzaile larunbatez mugaren bi aldetarik etorriak. Gure elkarteko Edgar mazkotak eraman du lehiaketa. Larunbat gau bero beroaren ondotik, Errobiren jausteko ibilaldi lasai batean elkartu gira. Eskertzekoak dira gure partaideak, Omei Kayaks, Passion Nature kaiakean berezitua, Onetik Makeako gasnategia edo Aquasports.

Ekainaren 11an Errobi bazterren garbitze bat antolatua izan da Ur tipula, Evasion 64, URA H 20 eta Uramap ekin. Baginen 50 lagun elkarturik erreka bazterreri lotuak diren zikinkerien biltzeko, Herriko Etxeak utzia zuen erremorkaren betetzeko. Denei eskerrak. Ez dugu ahantzi behar zikinkerien ixuria gelditzeko ere zikinkerien iturrian jo behar dela. Hortarako da hor www. Uramap. Net : ahal den jende gehiena mobilizatu kutsaduren kontra eta elkarrekin lotu egintzari.

Buruileko larunbata aratsaldez idekiko da berritz denentzat elkartea eta asteazken aratsaldez arraun motzeko eskolakoentzat.

# Egutegia / **Au programme !**

## Uztaila - Juillet

**15an**
Errobiko aurre festibaleko asteburua
Pré festival Errobiko festibala
Züzülü Baionan

**16an**
Gau argi festibaleko haurrak
Défilé des enfants du festival Gau argi
Groupes d'enfants Slovaquie et Allemagne

**20-21-22-23an**
Errobiko festibala
Atharri - Elizaldia

**19-26an**
Asteazken iluntzetako merkatuak
Marché nocturne - Pelote
Place du fronton

**29an**
Tournoi pala enfant / adulte
Animations équestres
Atharri

## Agorrila - Août

**02-09-16an**
Asteazken iluntzetako merkatuak
Marché nocturne - Pelote
Place du fronton

**4an**
Artzain xakur lehiaketa
Concours de chiens de berger
Atharri

**17an**
Kantu kontzertua Arragarekin
Concert avec Arraga
Eglise

**18-19-20-21-22-23an**
Herriko bestak
Fêtes d'Itsasu

## Buruila - Septembre

**01ean**
Ravel musika kontzertua
Concert Festival Ravel
Eglise

**(Datak finkatzeko)**
Ostiral arats kantatuak
Soirée conviviale et chantée

**10an**
Itsasuko itzulia ibilaldia
Trail et marche Itsasuko itzulia

**16an**
Arroka eguna - Plazan

**23an**
Lasai lehiaketaren finalak
Finale tournoi pelote Lasai
Fronton

**23an**
Sabai huste eta arrabestak
Vide grenier et Refêtes
Txistulari

**24an**
Artzamendiko desafioa
Course cycliste
Artzamendi

## Urria - Octobre

**08an**
UDALEKU 40urte
Les 40ans de UDALEKU
Atharri

**14an**
ITSASUARRAK 70urte
Les 70ans d'Itsasuarrak
Atharri

## Azaroa - Novembre

**12an**
Sabai huste
Vide grenier
Atharri

## Abendua - Décembre

02-03an
Eguberriko merkatua
Marché de Noël
Sanoki




## INTRAMUROS

Les nouvelles et événements d'Itxassou peuvent vous parvenir à toute heure. Il suffit de télécharger l'application intramuros sur votre téléphone portable sans oublier d'activer la notification.

**https://appli-intramuros.fr/**

Telekarga zazu aplikazione hori zure telefona mugikorrean. Herriko berri eta gertakari guzien jakinean izanen zira orenez oren.

# Berriak

## Zorionak Camille & Jean Claude




Ezkondu dira Itsasuko herriko etxean 2023ko apirilaren 29an Izoki Mulienian beren bi haurrekin bizi diren Camille eta Jean Claude.

Egunez egun aspaldiko urtetan lanerat jiten dira herriko etxerat, Camille bulego lanerat eta Jean Claude kanpoko lanetarat. Behingoan egun bateko errege eta erregina jin zaizkigu beren ahaide eta lagun guziekin, biziaren baikorki ospatzeko.

Herritar guzien partez, erran diegu segi eskuz esku ehun urtez eta milesker.

Camille Alzuri et Jean Claude Aguerre se sont mariés en mairie d'Itxassou le 29 avril 2023. La fête fut généreuse. Ils continueront à vivre à Mulienia avec Ione et Ioritz.

Au nom de tous les habitants de la commune, à Camille et Jean Claude, toujours autant d'enthousiasme sur leur poste de travail en mairie ou sur les services techniques, et beaucoup de bonheur à tous les quatre.



## Pintxo trago gaualdiak ekainean eta buruilean

Joan den urtean estreinatu ziren herriko etxeak bultzaturik ostiral aratsetako pintxo trago gaualdiak herriko ostatuetan.

Aurten esperientziak segitzen du auzoz auzo herriko ostatuetan. Itsasuar guziak gomitatuak dira ostiral gauetako haitada horietarat, trago eta pintxoen gozatzeko, baita lagun eta herritarrekin bi solasen egiteko.

Les soirées chantées apéro tapas avaient été lancées l'an passé à l'initiative de la mairie.

L'expérience est renouvelée ces mois de juin et septembre 2023. Tous les itsasuar sont conviés à venir partager l'apéro pintxo, et à passer un agréable moment de convivialité avec les amis ou les voisins.

## Remorka
## terrasse éphémère sur l'esplanade d'Ateka Sanoki
## Udako ostatu Ateka-Sanokin

LA BUVETTE REMORKA

Ostatu ibiltari batek jarri behar luke bere terrazarekin udako ostirale eta larunbat aratsez Ateka Sanoki gibeleko atalaian.

Baptiste Fourmeaux itsasuarraren proposamenari baiezkoa eman dio herriko etxeak. Lehenagotik erakutsia du Balakin ostatu atxikitzen badakiela Baptistek, eta geroztik bere ostatu Remorka Angeluko Kintaou merkatuan idekitzen du aste guziez.

Itsasuko plazak eskainiko luke elgarretaratzeko estakuru bat gehiago Remorkarekin, udako asteazkenetan baduelarik jadanik gauazko merkatuen parada.

Un bar ambulant et sa terrasse devraient s'installer sur les soirées du vendredi et samedi des mois d'été sur l'esplanade arrière d'Ateka-Sanoki.



C'est une proposition de l'itsasuar Baptiste Fourmeaux qui a déjà fait ses preuves dans ce métier sur Balaki et qui ouvre sa Remorka bar toutes les semaines sur le marché du Kintaou à Anglet.

L'initiative a été validée par la mairie d'Itxassou et vient conforter l'animation de la place du fronton qui bénéficie déjà des marchés nocturnes du mercredi.

# Berandotzeko minak idekiak zirelarik

**Laurent Heguy**

1942an sortua naiz, Latseko Kantinan. Han bizi ziren gure burrasoak eta han ziren burdin olak. Gure aita langile buru zen mina ziloetan eta gure amak jatekoa egiten zuen urrundik heldu ziren minetako langileentzat, Landesetarik edo Espainiatik adibidez. Gerla denboran, laborariak ziren edo apezak edo beste, eta irabazpide baten ondotik zetozen edo STO Alemaniarat lan egin beharrari iheska zetozen.

Mendiaren sabeletik burdin pirita ateratzen zen, baitezpadakoa azido sulfuriko edo beste egiteko. Urteak joan arau, burdin zainari segika, 500 metra luzeko harpeak zilatzen ziren Latseko ibarreko arroketan. Karrottoak minatik ateratzen ziren eta igorriak ziren Kantina gainaldeko zelairaino, eta gero zuzenduak ziren 300 metra beherago ziren harri hausteko mekaniketaraino. Ondoko haitadan karrottoak jautsiak ziren Indianoneko parreraino Ataitzetarik hurbil. Azkenean Latsen kargatzen ziren kamionetan eta geltokiraino eramaiten.

Laurent Héguyk beste ibilbide bat ukan du, Berandotzeko mina zilotik urrun. Latseko eskolan egin zituen ikasketa sakonak eta handik Olioseneko mutikoen eskolan egon zen zertifikata eskuratzeko. Ondotik Baionalderat egin zuen jauzi ikasketa teknikoak segitzeko. Breguet enpresan hartu zuten burdin lan zehatzendako. Berantago, bere ibilbideak asko erakatsirik eta beste zerbaiten ezagutzeko gutiziaz, sortu zuen bere enpresa berezitua industriarako mekanika zehatzean.

Erretretatu gazte, Berandotzeko Elizaldeko bordan bizi da. Baikorra, kalakaria eta doi bat abila, oroitzeko solasaldi bat bihurtu zaigu elkarrizketa hau.





Dominika Héguy sa maman

# Quand les mines étaient exploitées

**Laurent Héguy**

Je suis né sur place, en 1942, à Kantina où se trouvaient la maison de mes parents et les bâtiments de la mine. Mon père était contremaitre et ma mère cuisinait pour les mineurs qui venaient de loin, d'Espagne, des Landes. Pendant la guerre, ils étaient agriculteurs, curés ou autres et venaient chercher un complément de salaire ou échapper au service du travail obligatoire.

De cette montagne on extrayait de la Pyrite de fer, indispensable pour fabriquer de l'acide sulfurique en autre. Au fur et à mesure le long des veines, plus de 500 mètres de galeries ont cheminées dans la roche de la vallée du Laxia. Les wagonnets sortaient de la mine et rejoignaient le plateau au-dessus de Kantina, puis étaient dirigés vers les broyeurs (à environ 300 m plus bas). Ensuite, le minerai descendait en wagonnets jusqu'au Pas de Roland en face de chez Magis. Chargé sur des camions, il était véhiculé jusqu'à la gare d'Itxassou.

Laurent Heguy a suivi un autre chemin, loin de la mine, fermée en 1955. Après de brillantes études à l'Ecole primaire du Laxia puis à l'Ecole des garçons à Oliosenia (Goxoki) jusqu'au Certificat d'Etudes, il rejoint Bayonne pour passer un diplôme technique avant d'être embauché à Breguet comme Fraiseur.

Jeune retraité, il vit toujours et encore à Itsasu. Optimiste, blagueur et malicieux il a fait de cette rencontre un moment inoubliable.